

RAINBOW

Rights Against INtolerance: Building an Open-minded World

Field work-interviews

2011- 7-11

Aurkibidea

0.1 SARRERA GISA

Honako atal hau RAINBOW proiektuaren barruan sartzen da, eta gai konkretu bati buruzko politiken eta teoria zientifikoen gaineko ezagutza areagotzea du helburu. Gai hori hezkuntzan homofobiaren inguruan dauden estereotipoena da.

Lehenik eta behin, homofobiak bultzatutako eskola-jazarpenaren berezitasunak eta jazarpen mota horren oinarrian diren estereotipoak, ikuspuntuak eta jarrerak aztertuko ditugu. Ondoren, diskriminazio horiek gainditzeko xedea duten eta, era berean, gazte eta nerabeen nortasun sexualak sustatzen dituzten proiektu eta esperientzietara hurbilduko gara.

Horretarako Espainiako estatuan berriki egin diren ikerlanak baliatuko ditugu, eta Euskadiko testuinguruan egindako ekarpenik aipagarrienak nabarmenduko ditugu bereziki.

HOMOFOBIA HEZKUNTZAN

Eskola-jazarpenari eta homofobiagatiko bullyingari buruz

Oro har, eskola-jazarpena definitzeko esan dezakegu denboran zehar errepikatzen diren fisikoki, hitzez edota hartu-emanen bidez beldurtzeko moduak (hala nola, erasoak, irainak, mehatxuak, bazterkeria, etab.) direla. Jazarpen mota horrek botere-harreman bat erakusten du, baita parekoen taldean ere. Horrenbestez, eskola-jazarpena ezin da probokazio huts, noizbehinkako gorabehera edo gertakari isolatu bat bailitzan hartu. Gainera, beti ez da kontuan hartzen eskoletan ematen den jazarpenaren zati bat homofobiak eragindako bullyinga dela, eta sarritan hezitzaileak ez dira jazarpen mota horren ezaugarri konkretuak behar bezala identifikatzeko gai izaten, beraz, ezinbestekoa da ezaugarriok zehaztea¹:

Eskola-jazarpen homofobikoaren ezaugarri nagusia zera da, erasotzaileek edo “bully” deritzenek botere-harreman desorekatuak eraikitzen edo betikitzen dituztela homofobiari, sexismoari eta heterosexismoari loturiko balioak baliatuta (Platero, 2007, 5). Jazarpen mota horren adibide dira, adibidez, “heterosexueltasun-presuntzioa” eta horren ondorioz irakasle, ikasle eta familia homosexual, bisexual edo transexualek pairatzen duten ikusezintasuna, eta baita arau nagusiak alde batera utzi nahi dituztenak kontrolatzeko mekanismo gisa erabiltzen diren laido eta irain homofoboak ere (Generelo, 2008, 37).

Amparo Villarrek eta Inmaculada Mujicak (2009, 50) azaltzen duten legez, “genero-zainketa” estu horrek maskulinitasunaren ikusmolde patriarkalak egituratzen ditu femeninoa den edozeren, homosexualtasunaren eta transexueltasunaren ukazioa, aurkakotasuna eta bazterketa oinarri hartuta. Beren nortasuna sortzeko eta baieztatzeko² unerik garrantzitsuenean diren LGTB (lesbiana, gay, transexual eta bisexual) nerabeen artean ukazio horrek berehalako eragina izan dezake: ondoz ondoko gizarteratze-etapa ezberdinetan jasotako irudi negatiboak ez datozenean norberaren sentimenduekin bat, parekoen taldeko kide izateko nahiak norbere

¹ European homofobiaren ondorioz gertatzen den bullyingaren gutxi gorabeherako datuak kontsultatzeko: Takács, Judit (2006), Social exclusion of young lesbian, gay, bisexual and transgender people in Europe (LGBT). ILGA-Europe and IGLYO, in: <http://www.ilga-europe.org/europe/publications>

² ¿Seré gay? liburuak jasotzen duen azterlan baten arabera, gazte gay eta lesbianek hainbat urtez luzatu ohi den epealdi bat behar izaten dute beren nortasuna eraikitzeko. Horren laburpena kontsultatzeko: Generelo eta Pichardo, 2008, 96-97.

burua gaitzestea eta norbere joera ez onartzea ekar dezake. Are gehiago, litekeena da LGTB nerabeek jazarpen-egoerak normalizatzea eta erasoen erantzule direla sentitzea.

Aipatutakoaren harira, nabarmendu behar da bullying homofobikoa bestelako diskriminazio eta intolerantzia moduetatik (arrazakeria, xenofobia, gizarte-mailagatiko diskriminazioa, etab.) ezberdina dela, izan ere, eraso jasaten duten pertsonen normalean ez dute behar besteko laguntzarik izaten familian edo lagunartean (Generelo & Pichardo, 2008, 8)³. Hurbileko ingurunearekiko isolamenduari eguneroko bizitzako arlo guztietan⁴ -gelan edo jolastokian, eskolatik irteteen eta kalean, edo instituzioetan zein komunikabideetan- jasaten dituzten beldurtze-moduak gehituz gero, are zailagoa gertatzen da eraso jasaten duen pertsonak egoera bere kabuz gainditu ahal izatea.

Mota horretako erasoak jasaten dituzten pertsonen bizi duten bakartzea are nabarmenagoa egin daiteke bullying homofobikoak efektu kutsakorra izaten baitu: biktimak jasaten duen jazarpena haren senitarteko edo lagunengana ere irits daiteke, bereziki erasoak gertatzen direnean. Gutxiengo den sexu-joeraren batenganako interesa erakusten duen oro homosexualtasunaren susmopean egongo da. Susmo horren ondorioz jazarpena edo erasoak jasateko aukera handiak dituztenez, litekeena da pertsona horiek jendaurrean biktimaren edo homosexualtasunaren alde egiteari uztea.

Horrenbestez, bullying homofobikoa diskriminazio-mota ezberdina eta labaina ere bada. Batzuetan zaila suerta daiteke biktimak eta erasotzaileak identifikatzea; beste batzuetan, nabarmentzerik nahi ez duen

³ Madrilgo Erkidegoan 869 ikaslerekin egindako azterketa kuantitatibo batetik ateratako gutxi gorabeherako datuen arabera (Generelo & Pichardo, 2008, 76-82), ikasleek nahiko argi dute gizartean nolabaiteko homofobia dagoela, izan ere, % 89k baino gehiagok uste du gizarteak, oro har, modu bidegabeagoan tratatzen dituela homosexualak, eta gainera, % 74,5ek uste du institutuan gainerako ikaskideek baino tratu bidegabeagoa jasotzen dutela. Oro har, inkesta egin zaien neska-mutil gehienek (% 81,4) uste dute gay eta lesbianek gainerakoen eskubide berberak izan behar dituztela, % 10,2k uste du ez lituzketela besteen eskubide berak eduki beharko, eta % 5,6ren ustetan gay edo lesbiana izatea ez da zuzena. Azterlanak ondorioztatzen du inkestatuek ez dutela jarrera homofoborik sumatzen euren buruengan, baina gainerakoek bai.

Bestalde, inkestatuek homosexualen lagun-taldean ematen zaien tratuaz duten iritzia nahiko positiboa da (% 63k uste du besteak bezalaxe tratatzen direla), eta gauza bera gertatzen da familian ematen zaien tratuarekin: % 23k uste du modu lagungarriagoan tratatzen direla, eta % 50,1en aburuz gainerakoak bezalaxe tratatzen dira; % 19,3k baino ez du uste familian tratu bidegabeagoa jasotzen dutela. Datuok erakusten dute litekeena dela homofobiaren teoriariek antzemandako gaitzespen-foku garrantzitsuenak, familia eta lagunak alegia, aldatzen aritzea belaunaldi berrietan.

⁴ EAEko 88 ikastetxetako Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako 2.851 ikasleri egindako inkesta batean oinarrituta ISEI/IVEIk egindako azterketak (2005, 16-21) ohartarazten du bullyinga ikastetxeko jolastokian gertatu ohi dela lehen hezkuntzan (% 42) eta gelan bertan bigarren hezkuntzan (% 36). Gainera, azterlanak nabarmentzen du tratu txarren aurrean lagunak edo eskolako beste neska-mutilen bat izan ohi direla gehien esku hartzen dutenak (% 34,5 eta % 23,3 hurrenez hurren), baina % 21ek bakarrik uste du erasorik egonez gero irakasleek esku hartzen dutela. Ildo horri jarraiki, eskola-jazarpenaren biktimek lagunekin (% 46,5) edo senitartekoekin (% 60) hitz egiten dute irakasleekin baino gehiago (% 18,4). Azkenik, nabarmendu behar da jazarpena jasaten duten ikasleen % 14,3k ez diola inori ezer esaten.

biktimak izaten dira. Halakoetan zergatia agerian uztea jazarpena bera baino mingarriagoa izan daiteke (Generelo, 2008, 36).

Hori guztia kontuan hartuta esan dezakegu jazarpen homofoboa orokorra dela eta “ezinikusi mota ezberdinak, hots, gay, lesbiana eta transexualen aurkakoa ez ezik heterosexualtasunaren arauekin bat ez datozela uste den gizabanako guztien aurkako ezinikusia termino beraren azpian batzen dituen egoera-mosaiko bat mugatzen duen fenomeno konplexua” dugula aurrean (Villar & Mujica, 2009, 49). Beste era batera esanda, bullying homofoboa dagoeneko ez da gertaera bakan bat, hezkuntza-komunitate osoari eragin baitiezaioke: homofobiak genero-rol zurrun eta estatikoetan itxi ditzake pertsonak, eta horrek ikasleek sormenerako duten gaitasuna eta ikastetxeetan tolerantziarako eta elkarbizitzarako dauden moldeak murriztu ditzake.

Estereotipo, jarrera eta ikuspuntu homofoboak ikasgelan

Hezkuntzan dagoen homofobiari buruz egindako azterlan ezberdinek argi erakusten dute ezjakintasuna eta ikusezintasuna direla estereotipo homofoboak sortu eta mantentzeko arrazoi nagusietako bi. Hala ere, Platerok (2007, 12) adierazi bezala, etengabe LGTB pertsonen egunerokotasunari buruzko irudi distortsionatuak eta, sarritan, kontraesankorrak bidaltzen dizkieten mundu baldintzatuegiak ere aurkitzen dituzte adingabeek.

Alde batetik, gizartean dauden tabuek, isiltasunak eta helduek gai horietaz aritzeko dituzten beldurrek edo hezkuntza arautuan sexu-heziketarik ez egoteak ikusezintasuna eta ezjakintasuna areagotzen dituzte, eta ulertzera ematen dute gaia ez dela ikasgeletan irakatsi eta ikasi ahal izateko bezain garrantzitsua.

Bestalde, gizartearen eta erakundearen isiltasun horri kontrajarrita, ikasleek sexualitateari eta sexuari buruzko erreferentziaz beterik diren munduak aurkitzen dituzte, esaterako, komunikazioaren edo publizitatearen munduak. Informazio-eskaintza anitz –eta bereizi gabe– hori pornoari, kontsumoari eta, oro har, egunerokoarekin zerikusi gutxi duen homosexualitatearen irudi bati lotuta dago (Platero, 2007, 12), eta LGTB pertsonen irudi distortsionatua erakutsi ohi du gainera. Garrantzitsua da mundu baldintzatuegi horiek gazte eta nerabeentzako sozializazio-agentzia garrantzitsu bihurtzen ari direla adieraztea.

Ezkatuan zein agerian, ikasgeletan mota guztietako estereotipoak, ikusmoldeak eta jarrerak islatzen eta mantentzen dira. Horietako gehienak homofoboak izaten dira, baina batzuk homofiloak ere izaten dira, hau da, homosexualtasunaren inguruan atributu positiboak ikusten dituztenak. Hala ere, ezin da ahaztu biak ere LGTB kolektibo zabalaren inguruko sinplifikazio eta aurreiritzien ondorio direla. Hain zuzen, berriki Madrilgo Erkidegoko hezkuntza-sistemako homofobiari buruz egindako azterlan batek (Generelo & Pichardo, 2008) ikasleek dituzten eta irakasleek, ikastetxeetako langileek edo komunitateak berak sostengatzen dituzten jarrera eta ikuspuntu horietako batzuk biltzen ditu:

LGTBri buruzko estereotipoak, ikuspuntuak eta jarrerak

Hizkuntzaren erabilera	3. pertsona erabiltzea; horrek iritzi edo jarrera homofoboak norberarenak direla onartzen ez dela adierazten du. Neskek gayekiko toleranteagoak edo irekiagoak direla edo haiek babesteko joera handiagoa dutela uste dute, baina ez horrenbeste lesbianekiko.	“gizartea da”
	Oso maskulinoztat edo femeninoztat jotzen ez diren adierazpenen kontrako irainak edo gaitzespen-keinuak. Bereziki lumafobiak eragindako esapideak.	“maritxua”, “emagaldua”, “puta”, “nazka ematen dit” “luma dauka”
	Diskurtso instituzionala eta argumentu erlijiosoak erabiltzea dela jarrera homofoboak babesteko, dela elizari LGTB pertsonen estereotipoak eta jazarpena eragiten dituela egozteko.	“moralaren kontrakoa” “naturaren kontrakoa”
Oinarritzotze edo eraikuntza soziala	Uste da nagusiagoa den jendea dela harreman mota ezberdinak ulertzen ez dituen, eta “modernotasun” seinalea dela orain halakoak egin ahal izatea.	“jaino ala bihurtu egiten dira?”, “desbideratuak”
Genero-kategorizazioa eta idealizazioa	Lesbianei rol maskulinoak eta gayei rol femeninoak berresleitzea.	“mari-mutilak”
	Ogibideak eta lanbideak modu arbitrarioan esleitzea	“gayak ile-apaintzaileak edo artistak dira”
	Ezaugarri bereizgarriak modu arbitrarioan esleitzea	“kuxkuxeroagoak eta sentiberagoak dira”, “gehiago zaintzen dute euren burua”
Estigmatizazioa eta kutsatzeko beldurra	LGTB pertsonak beren desio sexualaren arabera ikustea edo hori leporatzea	“promiskuoak”
	LGTB pertsonak marjinal gisa edo gaixotasun estigmatizatuei loturiko jende gisa ikustea	“GIB/HIESduna”, “arduragabea”, “perbertsoa”
	LGTB defendatuz edo haien inguruko interesik erakutsiz gero LGTB estigma jasotzeko beldurra	
Ixtea edo borondatez zabaltzea	LGTB pertsonak elkar defendatu behar dutela sostengatzea; beren egoera hobetzeko ardua euren inposatzea edo esparru pribatuan gordetzera behartzea.	“etiketa ez diezaiotela euren jarri euren buruari”

Geuk egina COGAM kolektiboaren azterlana oinarri hartuta.

Azkenik, ohikoa izaten da ikasleek irain sexistak edo homofoboak erabiltzea benetan zer esan nahi duten eta zenbaterainoko eragina izan dezaketean jakin ere egin gabe. Horrenbestez, mota horretako erasoek aparteko aipamena merezi dute:

Alde batetik, nabarmentzekoa da mutilen kontrako irainak beren sexu-joerari edo "gizontasunari" lotuta egoten direla, eta emakumeen kasuan, aldiz, beren sexu-askatasuna zigortzen dela. Beste behin ere zera ikus daiteke, "gizonak gutxiago denari, femeninoari kontrajarritako maila pribilegiatuan mantentzen dituen hierarkia sexuala mantentzeko modua da iraina; emakumeek, nola ez, egoera hori onartu behar dute ezertan aldatu gabe" (Generelo, 2008, 47).

Bestalde, azpimarratu behar da ikastetxeek mantendu egin ohi dutela irainen eta ahozko erasoek klima hori, eta baita "sexu-arauarekiko ezberdinak direla dakiten nerabeei mingarria eta geldiarazlea suertatzen zaien eta herstura eragiten dien erasoak" besterik ez diren sexu-joeragatiko laidoak ere (Generelo, 2008, 21).

Estereotipo, ikuspuntu eta jarrera horiek guztiak ikusita, hezkuntzako, gizarteko eta administrazioko esparru guztietan sexu-aniztasunean heztea horren zabaldurik dauden diskriminazio-mota horiek gainditu ahal izateko proposamen integrala da, eta horixe azalduko dugu jarraian.

SEXU-ANIZTASUNEAN HEZTEN

Eskoletan nortasun afektibo-sexuala lantzea

Euskal hezkuntza-sistemari begirada azkar bat emanez gero, argi ikus daiteke gaur egun gabeziak daudela estereotipo eta adierazpen homofoboek aurre egiteko eta eskola-jazarpena prebenitzeko orduan: sexu- eta genero-aniztasuna 12 urtetik aurrera lantzen da; ez dago lehen hezkuntzako curriculumean sartuta; eta institutuetan homosexualtasunari eta lesbianismoari buruzko ikasgai bat duen "Uhin-bare" programa dago, baina ez du transexualtasuna lantzen.

Batzuetan LGTB elkarte, kolektibo eta taldeak eurak izan dira ikastetxeei gaion inguruko tailerrak proposatu dizkietenak: Aldarte Lesbiana, Gay eta Transexualen Arreta Zentroak 6 eta 12 urte bitarteko ikasleei zuzendutako "Diversidad sexual y Nuevas Familias: giza hezitzaile proiektua" gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektua jarri zuen abian 2003an; Gehitu gay, lesbiana, transexual eta bisexualen Elkartek LGTB fobiaren kontrako materiala jartzen du DBHko lau mailetakoko ikasleen eta irakasleen esku; EHGAM mugimendua (Euskal Herriko Gay-les Askapen Mugimendua) aitzindaria izan zen 1985-86 urteetan unitate didaktiko bat prestatu baitzuen, eta orain "homofobiaren aurpegiak" tailerrak eskaintzen ditu.

Espainiako hezkuntza-sistemari dagokionez, Generelok eta Pichardok argi esaten dute: "isiltasunaren legea dago indarrean. Ikusezin egitea mendekotasuna legitimatzeko eta desberdintasunak betikotzeko tresna nagusietako bat da: ez da ikusten ez denaren edo ezagutzen ez denaren aurka borrokatzen. Arazoa ikusi ezean existituko ez balitz bezala da" (2004, 5). Gai horren inguruan Espainiako parlamentuak hartutako neurriak berrienetako bat "Herritartasunerako hezkuntza" ikasgaia onestea izan da (2006 Errege Dekretua); ikasgai horren helburua besteak beste aniztasun afektibo-sexualari eta familiarrari buruzko edukiak lantzea da. Gainera, aipatu beharra dago ikasgai hori Bigarren Hezkuntzako ziklo guztietan sartuta dagoela, baina egotez, Lehen Hezkuntzako azken zikloan ematen hasteko diseinatuta dagoela.

Horregatik guztiagatik, hezkuntza-komunitateak har dezakeen neurriak garrantzitsuenetako bat afektibotasun- eta sexualitate-aniztasuna modu argi eta esplizituan lantzea eta eskoletan gauza natural gisa onartzea da.

Beste era batera esanda, sexu-joerak, genero-identitateak, emozioen hezkuntza etab. beharrezko gai garrantzitsuak direla eta horrenbestez ikasgelan ere irakatsi eta ikasi behar direla onartzea.

Horretarako, hezkuntza-ziklo guztietako Curriculum Ofizialean afektibotasun-aniztasunaren inguruko erreferentzia positiboak sistematikoki sartzeari⁵ proposatzen dute zenbait egilek eta LGTB elkartek, izan ere, modu horretan kontuaren muinera iritsi ahalko litzateke azalean geratu beharrean, hori guztia ikasleek bizi ditzaketen prozesu pertsonal konplexuekin lotuko bailitzateke; hezkuntza-sistemak irakasten dituen ezagutzen corpus orokorrean sartzeko era proposatzen dute (Villar & Mujica, 2009, 60).

Gainera, Curriculum Ofizialean sartzeari esan nahi du edukiok modu sistematikoagoan landu ahalko direla. Horrela, ikastetxeetako hezkuntza afektibo-sexuala ez litzateke ekimen partikular gutxi batzuen edo irakaslerik inplikatuenean espontaneotasunaren mende egongo.

Hala ere, Curriculum Ofizialean sartzeari ez da nahikoa, beraz, jazarpen-egoerak gainditzera eta bizipen afektibo-sexual ezberdinak normalizatzen bideratutako bestelako neurri osagarriak ezarri behar dira:

- Sexualitatearen ñabardura ezberdinak barne hartzen dituzten edukiak azpimarratzea, hau da, sexualitatea ugalketara, gorputzaren eta genitalen azterketara eta antzekoetara ez mugatzea.
- Aniztasun psiko-sexuala ona, interesgarria eta defendatu beharreko zerbait bailitzan baloratzen duten eta autoestimua areagotzea helburu duten jarrerak eta trebeziak garatzen laguntzea. Era berean, generorolak ezartzen dituzten joerak sortzea saihestu behar da.
- “Jardunbide egokien” gidak adostea eskola irakasleek, ikasleek eta langileek esparru afektibo-sexualean sentitzen, pentsatzen eta desio dutena betetzeko espazio gisa finkatze aldera, eta era berean, ikasleen, irakasleen edo langileen aurkako intolerantzia, tratu txar edo bazterkeria jarreraren kontrako neurriak hartze aldera.
- Adina, taldearen ezaugarriak, testuinguru soziokulturala eta hezkuntzaren testuingurua bezalako faktoreak kontuan hartzen dituzten baliabide eta material didaktiko ezberdin eta erakargarriak bideratzea hezkuntza-komunitate osoari (irakasleak, zuzendaritza, langileak, ikasleak, familiak).

Ingurunean gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzea

Beste kontu bati buruzko gogoeta ere egin nahi dugu, egungo gizarteetan handituz doazen gizarte-irekitasunari eta aniztasunari buruz hain zuzen, eta baita horien inguruko hezkuntzari eta elkarbizitzari ematen zaien garrantziari buruz ere. Hipotesi modura, esan dezakegu LGTB kolektiboaren irekitasunak, ikusgaitasunak edo ezagutzak ez dutela aniztasunagatiko errespetua bermatzen:

Izan ere, gizartearen irekitasun horrek gero eta LGTB nerabe eta gazte gehiago bultzatzen beren sexualitatea argi eta garbi bizitzera, baina hezkuntza-sisteman errealitate horien inguruko isiltasuna egoteak institutuetan eskola-jazarpen homofobikoa areagotzea ekar lezake (Generelo & Pichardo, 2004, 5). Era berean, hezkuntza-sistemako aldaketekin batera ez bada gizartearen irekitasunik eta nortasunen onarpenik

⁵ ISEI/IVEIren azterlanak (2005) ohartarazten du Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) oinarrizko hezkuntzako maila guztietan ematen direla bullying kasuak; bullying-indizea igo egiten da Lehen Hezkuntzako azken mailetan eta apurka-apurka jaisten doa Bigarren Hezkuntzako lehen lau mailetan (% 5,51ko indizea 1. DBHn eta % 2,35ekoa 4. DBHn). EAEko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako 6. mailan gertatzen da bullying gehien (% 6,2).

ematen, litekeena da ikastetxetik kanpo edo ikasketa-garaia amaitzerakoan LGTB gazte eta nerabeek diskriminazioa jasaten jarraitzea.

Azterketa horietatik atera daitekeen ondorioetako bat aniztasuna elkarrekin kudeatzeko neurri egokiak hartzeak duen garrantzia da; edo beste era batera esanda, sexu-joera ezberdinak elkarrenganako tolerantzia formalaz –edo euren burua ireki eta pluralizat duten gizarteetan formalki onartutako tolerantzia motez– haraindi komunikatu ahal izateko baldintzak sortu behar direla. Kontsultatutako azterlanetako asko bat datoz egunerokotasuna gertatzen den ingurune osoan modu aktiboan esku hartu behar dela esaterakoan.

Ingurunean gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea egiteko ideiarene helburua ikastetxea eta ingurunea bera erabat eraldatzea da, hain zuzen. Horretarako, onartzen da ingurune konkretu batean bizi diren pertsona guztiak hezitzaileak eta ikasleak izan daitezkeela, hartu-emanen bi zereginak betetzen baitituzte era berean. Beraz, eskola edo institutua ez dira hezkuntza-eragile bakarrak izango. Are gehiago, adingabeen hezkuntzan tarte ezberdinak daude: eskolako tarteak, familiaren tarteak, aisialdiaren tarteak eta, gero eta gehiago, komunikabideen edo teknologiaren tarteak. Tarte horietako bakoitzari espazio bat dagokio, eta ingurunean egiten den gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak espazio ezberdinen “hezkuntza-erabilera” sustatu behar du. Azkenik, eragile sozialen hezkuntza-ekintza hezkuntzaren asoziazionismoan eta partaidetzan oinarritu behar da” (Koheslan, 2008, 97).

Gizarte- eta hezkuntza-arloko epe eta espazioen (kalea, eskola, etxea, etab.) aniztasuna, ingurunean eta harremanetan tartean diren gizarte- eta hezkuntza-arloko eragileen ugaritasuna eta izan beharreko baliabideak kontuan hartzea diskriminazioa gainditzeko eta aniztasunean elkarbizitza egiteko bermea izan daiteke. Ildo horretan hartu beharreko neurrietako batzuk honakoak dira:

- Harremanak egiteko⁶ eta emozioak zein kezkek adierazteko kalitatezko tarteak eta espazioak areagotzea; joerak, bizipenak edo sentimenduak helaraztea eta konpartitzea. Hau da, mesfidantza-testuinguruetatik LGTB pertsonen onarpenaren inguruko zalantza oro argituko duen konfiantza-testuinguruetarara igarotzea.
- Babes-sarea hedatzea, bereziki hurbileko erreferenteen babesari (parekoen taldea, familia, irakasleak) eta erreferente publikoak egoteari (pertsonaia historikoak, literarioak, telebistakoak, etab.) dagokionean, horretarako gizarte- eta hezkuntza-arloko eragile ezberdinak modu aktiboan inplikatu eta koordinatuta;

⁶ Oro har, esan daiteke lotura dagoela pertsona homosexualen ezagutza-mailaren eta homosexualtasunaren onarpenaren artean. Madrillgo Erkidegoan 869 ikaslerekin egindako azterlan batetik (Generelo & Pichardo, 2008) ateratako gutxi gorabeherako datuen arabera, pertsona homosexualak ezagutzen dituzten neska-mutilek puntuazio altuagoa izaten dute homosexualekiko erosotasun-sentimenduari dagokionez (% 31,8k dio oso eroso sentitzen dela eta % 24,2k, aldiz, nahiko eroso sentitzen dela) homosexualik ezagutzen ez dutela esan duten pertsonen baino (talde horretan % 17,4k dio oso deseroso sentitzen dela, eta % 20,7k aldiz, nahiko eroso sentitzen dela). Hala ere, azterlan horrek erakusten du jarrera negatiboa zertxobait areagotzen dela pertsona homosexuala lagun edo senitarteko bat baino gertuagokoa denean; datuok homofobia barneratua edo norbere buruaren gaitzespena erakuts dezakete, edo baita kontua lehen pertsonan ezagutzeak eragindako homofobia emozional gogorra ere. Horrenbestez, pertsona homosexualak ezagutzen dituzten ikasleek puntuazio altuagoa izaten dute muturreko jarreretan: % 55 oso ados dago jendaurrean maitasun keinuak egitearekin eta % 10 ez dago bat ere ados; euren inguruan homosexualik ezagutzen omen ez duten gazteek, aldiz, erdi mailako puntuazioa izaten dute (ibidem, 65).

eragileon artean aipatzekoak dira administrazio publikoa, ikastetxe formalak eta ez-formalak, familiak, komunikabideak, aisialdiari loturiko ekimenak, LGTB elkarteak edo bestelako elkarte kulturalak, kirol-elkarteak, etab.

- Heterosexueltasun-presuntzioa gainditzea, aniztasun afektibo-sexuala eta familien, sexu-joeren eta generoen aniztasuna onartzea (baita gazte-gaztetan ere), arreta berezia jartzea genero-rolen haustura erakusten duten adingabeengan eta, bidezkoa bada, laguntzea eta egoerak partekatzea, beti ere nerabea ordezkatu gabe, bereziki lagunen sostengua bakarrik edukitzea gutxiegi den kasuetan.
- Beharrezko baliabide guztiak zuzentzea, aniztasuna bultzatzen duten eta edozein joeratako gazte eta nerabeei luzatzeko modukoak diren ekimenak edo jarduerak diruz laguntzea, eta LGTB gazte eta nerabeekin zuzenean konektatzeko bestelako programak finantzatzea; eragile ezberdinen prestakuntza- eta orientazio-premiak betetzera bideratutako materialak sortzea; sentsibilizazioaren, kontzientziazioaren eta etengabeko prestakuntza integralaren alde egitea; errealitate horien azterketa eta ikerketa sustatzea; etab.

Ingurunean egindako aldaketa guztiei dagokienez, LGTB erakundeek aipamen berezia merezi dute. Elkarreok ibilbide luzea dute kalitatezko espazio beroak sortzeko lanetan eta inplikatzeko eta aldarrikapenak kalera ateratzeko lanetan; eta hizpide dugun kasuan, hezkuntza-sistema arautu eta arautu gabearenganako ardurak eta kezka berezia erakutsi izan dute, prestakuntza- eta sentsibilizazio-premiei erantzuteko hitzaldi, tailer, ikastaro, jardunaldi eta mintegi ezberdinak eskaini izan dituzte, eta aniztasun afektibo-sexuala naturaltasunez landu eta bizi ahal izateko estrategiak, lanabesak eta baliabideak helarazi izan dituzte.

Eskubideak parekatuko dituzten lege- eta erakunde-esparru berriak⁷

LGBTB pertsonen eta kolektiboen presentziaz eta partaidetaz gain, azken urteetan apurka-apurka herritarren eskubideak parekatuz doan unibertso juridiko eta instituzionala finkatuz joan da. Erreforma horiek egin aurretik egondako eztabaidek –Eliza Katolikoa eta alderdi politiko kontserbadoreak guztiz kontra daude– errealitateok nabarmenago egiten lagundu dute.

Lau dira EAEko LGTB kolektiboarentzako eskubide-eredu berriaren oinarriak finkatzen dituzten neurriak, hain zuzen, erakundeek ekimen bi eta araubide juridikoa zeharo aldatu duten bi lege:

- Izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legea, Eusko Legebiltzarrak emandakoa. Lege honek, bikote moduan erregistratzen diren bikote homosexualen estatutu juridikoa onartzeaz gain, umeak elkarrekin adoptatzeko aukera ere ematen die sexu bereko bikoteei, sexu ezberdineko pertsona bik osatutako bikoteek zein ezkonduetako bikoteek dituzten eskubide eta betebeharrak berberekin. Halaber, bikotekideetako baten adopziozko seme-alabak zein seme-alaba biologikoak adoptatzeko eskubidea aitortzen dio beste bikotekideari.
- Espainiako kongresuak uztailaren 1ean onartutako 13/2005 Legeak Kode Zibila aldatzen du ezkontzeko eskubideari dagokionez. Lege horri esker, ezkontza sexu bereko edo desberdineko pertsonen artean eman daiteke eta ezkonduetako bikote guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, bikotekideen sexua edozein dela ere. Kode Zibilaren aldaketa honek bere horretan mantentzen ditu ezkontzaren ondoreak, instituzioaren konfigurazio objektiboa errespetatuta, eta guztientzako berberak dira ezkontzaren sexua edozein dela ere (besteak beste, eskubide eta prestazio sozialei dagokienean edo

⁷ Honako azpi-atal hau prestatzeko Arartekoak egindako oharra eta iradokizunak hartu ditugu oinarri.

adopzio-prozeduretan parte hartzeko aukerari dagokionean). Legeak aldaketa terminologikoak egin ditu Kode Zibileko zenbait artikulutan: senar-emazteei buruzko erreferentzien ordean ezkontide edo ezkonlagun hitza erabiltzen da, elkarrekin ezkonduko pertsonaren adiera juridikoarekin, biak sexu berekoak ala sexu ezberdinekoak diren kontuan hartu gabe.

- 2000ko otsailaren 4an Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak Ez-legezko Proposamen bat onartu zuen; bertan Foru Aldundien eta EAeko Udal nagusien laguntzarekin lesbianeiei eta gayei zein beren familiei eta gertukoei informazioa, arreta eta aholkularitza eskaintzeko zerbitzua abian jartzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari. 2002an Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzara atxikitako Berdindu! zerbitzua jarri zen martxan gay, lesbiana eta transexualei arreta emateko.
- 2010ean Euskal Osasun Sistemak transexualen osasun-arreta integrala hartu zuen bere gain, ordura arte osasun-prestazioetatik kanpo zegoen sexua berresleitzeko kirurgia barne. Gaur egun ebakuntza hori Gurutzetako Ospitalean (Bizkaia) sortutako unitate espezializatuak egiten du.

Konstituzioak jasotzen ez dituen lege-erreforma horiek aurrerapauso handia ekarri dute LGTB kolektiboaren eskubide eta betebeharrak parekatzeko lanetan. Hala ere, erreformak egin zirenetik denbora nahiko pasatu ondoren, Arartekoak uste du oraindik ere hutsuneak eta urritasunak daudela horiek aplikatzerakoan, bereziki Erregistro Zibilean legezko sexu-aldaketak erregistratzeari eta bikote homosexualen seme-alabak inskribatzeari dagokienez. Erreformak oso-osoan aplikatu ahal izateko egokitzapen administratiboak egin aurretik ezinbestekoa da legezko errealitate berria modu inplizitu zein esplizituan baztertzeko duen edo harekin kontraesan dagoen iraganeko edozein oztopo bazterteaz, nahiz eta formalitate hutsa izan.

Euskal sisteman egindako aldaketei dagokienez, Berdindu! bezalako zerbitzu berriek irismen nabarmenagoa behar dute. Osasun-laguntzari eta osasun-prestazioei dagokienez, transexualen kolektibo ezberdinen aldarrikapenei ere erantzun behar zaie kalitatezko zerbitzu integrala emango bada.

Hitz batez, Arartekoak adierazten duen bezalaxe, homosexualen eta transexualen eskubideen aldeko aurrerapausoak emateko ezinbestekoa da errealitate horren jakitun den hezkuntza garatzea arlo eta maila guztietan eta hezkuntza hori eragile guztiei helaraztea.

Azkenik, reforma legal eta administratibo horien guztien kontrako kritikarik zorrotzenak euskal LGTB elkarteetatik datoz, kolektiboaren aldarrikapenak heterosexuatzeko eta instituzionalizatzeko arriskuaz ohartarazten baitute. Heterosexista eta sistemikotzat har daitezkeen zenbait eskubide eta betebeharrak parekatzeaz haraindi, sistema patriarkala eta haren balore eta adierazpen heterosexista eta homofoboak errotoz kentzeak duen garrantzia azpimarratzen dute.

0.2 SARRERA GISA

Lan-agiri hau Rainbow proiektuaren barruan dago eta xede bikoitza du: alde batetik, hezitzaileek LGTB pertsonen eta beren errealitatearen inguruan dituzten diskurtsoak eta jarrerak ezagutzea, eta ikastetxeetan aniztasun afektibo-sexuala lantzeko irakasleek dituzten proposamenak ezagutzea; eta bestetik, hezkuntza-erloto bullying eta homofobiari buruz egindako diagnostikoa elkarbanatzea eta adingabeen ingurune sozialean eraginik handiena duten agentzien ekarpenak biltzea. Era berean, arazok eskoletara hurbiltzeko biderik egokienak bilatzea eta bide horiek gauzatzeko elkartasuna bilatzea ere badu helburu. Horretarako orientatzaileei, zuzendaritzako kideei eta oro har irakasleei egindako hamar elkarrizketatik eta 3 focus group-etik ateratako ondorioz behinenak ekarri ditugu. Focus group horiek era guztietako jendez osatuta egon dira: gurasoekin eta familia-elkarteekin (GE) lotura duten erakunde ezberdinetako ordezkariak, LGTB erakundeak, hezkuntza-, gizarte- eta politika-erloto kolektibo eta talde ezberdinak, eta euskal hezkuntza publikoko administrazioaren instantzia desberdinak.

Proiektu honetan hiru euskal probintziatako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) hiri- eta landa-eremuetako oinarritzko hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ikastetxe publikoek eta pribatu hitzartuek hartu dute parte, eta baita lurralde osoko LGTB elkarte ezberdinetako, ikasle-batzarretako, sexologia-elkarteetako, hezkuntza afektibo-sexualerako elkarteetako eta abarretako ordezkariak ere.

Bestalde, nabarmendu behar dugu gehienetan ikastetxeak eurak izan direla elkarrizketatu beharreko pertsonak aukeratu dituztenak, edo interesik handiena zuten irakasleek eman dutela baiezkua. Uste dugu horrek eragin zuzena izan dezakeela jarraian adieraziko ditugun emaitzetan, hau da, elkarrizketatutako profesionalen inplikazio eta interes berezian, hezkuntza-sistemari egindako kritiketan, edo beren hitz neurtuetatik ondoriozta daitezkeen pertzepzio eta diskurtsoetan.

IRAKASLEEK LGTB-REN INGURUAN DITUZTEN PERTZEPZIOAK, IRUDIAK ETA DISKURTSOAK

Estereotipoak, topikoak eta irudiak

Hezkuntza-komunitatearen heterossexualtasun-presuntzioa abiapuntu hartuta, irakasleek desberdinak diren ikasleek izan dezaketen sexu-joera komentatzen dute elkarrekin. Hona hemen elkarrizketatutako pertsonengan aurkitutako topikorik ohikoenak:

- **Izaera esleitzea:** jendaurrean sentimenduak edo afektibitatea erakustea (eskutik helduta joatea edo bestelako maitasun-adierazpenak); neskekin batzeko edo jolasteko joera; maitekorra edo alaia izatea, gehiago hitz egitea, etab.
- Zaletasunak esleitzea: futbola gustuko duten neskak eta sokasaltoan edo panpinekin jolasean aritzen diren mutilak.
- Gustu estetikoak edota artistikoak esleitzea: antzerkia, dantza, musika edota irakurketa gustuko izatea edo praktikatzeko; arropen igartzen den gustu estetikoak (jantziak, zapiak, eskumuturrekoak eta bestelako apaingarriak; arrosa kolorea; futbolariz janzten diren neskak); makillajea.
- Adierazpen-bideetan oinarrituta kategorizatzea: ahotsean kutsuren bat (ahoskera, doinua,...), ibiltzeko modua, eskuaren mugimenduak, keinu txikiak...

Kontuan hartu behar da LGTB estereotipoak batzerakoan pizten dela bestelako sexu-joera baten susmoa, ez da ezaugarri, zaletasun edo gustu bereizgarri konkreturik garatzen edo egoten.

Bestalde, nabarmendu behar dugu elkarrizketatu ditugun pertsonen artean ez dugula homosexualitatea patologia moduan edo gaixotasunari, “biologikoari”, “medikoari”, “naturaren kontrakoari” edo “moralaren kontrakoari” loturiko zerbait bezala ikusten dutela adierazten duen ezer aurkitu.

Jarrerak eta konpromisoak

Ikastetxeetako LGTB errealitatea, printzipioz, normaltasunaren barruan dago: oro har, ez dago ez aldeko erreakziorik, ezta “muturreko” kontrako erreakziorik ere. Aniztasun afektibo-sexuala ezohiko zerbait bailitzan tratatzen da, beraz, heterosexualtasun-presuntzio unibertsalarekin bat datozen jarrerak eta diskurtsoak sortzen dira: “jaramonik ez egitea”, “arazoa agertzen denean” jardutea, “ez bada agertzen ez da lantzen”.

Bizitza pribatuagatiko ustezko errespetua erabiltzen da mota horretako jarrerak defendatu eta indartzeko: publikoa eta pribatuaren arteko bereizketa arbitrario baten ondorioz, LGTB errealitatea arlo pribatuan jartzen da.

Irakasleek badakite eurentariko batzuek “diskrezioz” eta kasu batzuetan “ezkutuan” bizi dutela beren homosexualitatea. Onartzen dute deseroso senti daitezkeela eta ulertzen dute ikasleen aurrean ez “biluztea”. Iritzi horiek guztiek homosexualitatearen ikusezintasuna ulergarria dela adierazteko eta beren sexu-identitateari buruzko “azalpenik eman behar ez dutela” (E-10) defendatzeko balio dute. Lankide eta profesional ona izatea, horixe da baloratzen dutena.

Bestalde, erabaki pertsonalak ustez errespetatzeko jarrera hori beste jarrera batzuekin nahasten da batzuetan, homosexualtasuna gehiegi ez ikustearen alde egiten duten jarrerekin alegia. Fenomeno horri lumafobia deitu izan zaio (gayen luma edo ematzea ez onartzea).

Ildo berari jarraiki, muturrekoagoak diren iritziak dituztenek bakoitzak bere sexu-nortasuna definitzeko zain egoten dira. Ezkutatzea edo irekia izatea LGTB pertsona bakoitzaren esku dagoela defendatzen duen ikuspuntu horren arabera, bakoitzak erabakitzen du bere sexu-joera erakutsi ala ez, bakoitzak du bere egoera hobetzeko edo bere horretan uzteko ardura, eta hobeto da LGTB pertsonak elkar defenditzea. Halako jarrera erakusten duten pertsona heterosexualak pasibotasun erosoaren babespean geratzen dira.

Azkenik, normaltasuna naturaltasun ikur gisa ere har daiteke, eta halaxe erakusten dute ikastetxeetan errealitateon inguruko egoera eta tratamendu naturala egitearen aldeko jarrera eta diskurtsoa erakusten dutenek; euren ustez, errealitateoi “hezkuntzatik kanpoko beste toki askotan izaten dena bezain zorrotza edo aurreiritziduna” (E-4) ez den tratamendu naturala eman behar zaie eta hitzak eta esapideak horrenbeste neurtu gabe, “horren purista izan gabe” (E-4), erabiltzearen aldeko apustua egin behar da.

Horren adibide ona dira ikasleek elkarri bota ohi dizkieten irainen aurrean pasiboak izaten diren jarrerak. Irakasleek irainaren norainokoa neurtzen dute: nork esaten dion nori eta nola esaten dion, umiliatzeko asmoz esan dion edo ez... eta hori oinarri hartuta hartzen dute errieta egiteko, falta bat jartzeko edo besterik gabe ez ikusiarena egiteko erabaki arbitrarioa.

Ahozko hizkuntzaren, hitzekoa ez den hizkuntzaren eta isiltasunaren erabilerak

Oro har, esan dezakegu irakasleek ez dutela mespretxuzko termino homofobo edo sexistarik erabiltzen. Hala ere, LGTB pertsonen ari direnean ez dituzte behar bezala, modu zehatzean edo esplizituan izendatzen. Horren ordez “normalak ez diren”, “ezberdinak” edo “arraroak” diren zein “estilo ezberdina” duten gustuak edo interesak dituen jendea, “zerbait dago”, “itxura du”, “joera nabarmena du” eta antzeko esapideak erabiltzen dituzte.

Hasiera batean normaltzat edo naturaltzat hartzen zena tabu izaten hasten da. Izan ere, gehienak ados daude ikastetxeetan LGTB sexualitatea eta errealitatea tabu direla esaterakoan. Eta tabu horiek irakasleekin izan ditugun elkarriketetan ere agertu dira: batzuetan esaldiak isilunez laguntzen dituzte edo ez dituzte esaldiak amaitzen; zenbait termino edo kontzeptu ez dituzte izendatzen edo saihestu egiten dituzte, etab. Isiltasun edo hizkuntza ez erabiltze hori bereziki deigarri gertatzen da “gay” edo “lesbiana” bezalako hitzek beldurra pizten dutela edo negatiboa, txarra, estereotipatua den zerbaitekin lotzen direla iradokitzen baitu. Iraintzat hartzen dira hala ez badira ere.

Azkenik, aipatu behar da hitzekoa ez den hizkuntzak (gaitzesteko edo urruntzeko keinuak, arbuio-begiradak, harridura aurpegiak...) adierazten duela LGTB errealitatea guztiz modu irekian bizi ez den eta gizarteak guztiz onartzen ez duen errealitatea dela.

Ikasleak ikusteko modua

Azpi-atal honetan ikasleek LGTBren inguruan dituzten irudiak, jarrerak eta hizkuntza irakasleek nola ikusten duten aztertuko dugu. Iritzi horiek guztiak garrantzitsuak dira estereotipo berriak eta irakasleen euren jarrerak erakusten baitituzte, edo aipatu berri duguna indartzen baitute.

Irakasleen diskurtsoa bi iritziren artean banatzen da: batzuek umeak sexugabetzat jotzen dituzte, eta besteek uste dute gauzak modu naturalean bizi dituztela, baita “xalotasunez” ere (“ez dira jabetzen”); nerabeen kasuan, batzuek zalantzati edo “nahastuta” daudela uste duten bitartean, besteen ustez helduak (familiak, irakasleak, etab.) baino ireki eta toleranteagoak dira.

Lehenengo diskurtsoa dutenen ustez, ikasleek ez dute heldutasun nahikorik eta momentuko nortasun-nahaste hori denborarekin konpondu ahal izango dute, bereziki sexualki aktibo egiten direnean.

Bigarren diskurtsoa dutenek homofobia tradizioarekin nahasten dute, eta gazteen irekitasuna, aldiz, modernotasunarekin. Kasu horretan, ikusmolderik irekienak adingabeen berezkoa den zerbaitekin nahastu ohi dira.

Ikasleek, beren sexuaren arabera, sexualitatearekiko duten jarrerari dagokionez, interesgarria da nola emakumezko irakasle batzuen ustez mutilak neskak baino irekiagoak diren:

Hala ere, elkarriketatutako pertsonen ustez, ikasleek nortasun afektibo-sexualaren inguruko gaiengatik jakin-mina eta interesa dute. Jaso ditugun lekukotza ezberdinen arabera, ikasle gehienek ez dakite heterosexualitatea zer den, baina gutxi gorabehera sumatzen dute homosexualitatea zer den.

Ezjakintasun handia egoteaz gain, irakasleek aipatzen dute ageriko kontraesanak daudela ikasleek esaten eta egiten dutenaren artean: homosexualitatea ustez onartu eta toleratzen dutela erakutsi arren, jarraian eraso eta irain homofoboak egotz ditzakete, eta batez ere, mutilek bere gain hartzen eta neskek onartzen dituzten maskulinitasun- eta femeninitasun-eredu zurrunei jarraitzen dieten jokabide sexistak izan ditzakete.

Bullyingaren inguruko irudiak eta kontzeptuak

Elkarrizketatutako pertsonen oso modu ezberdinak dituzte bullyinga identifikatzeko, jazarpen-maila neurtzeko, eraso jasan duen pertsonarengan izandako eragina neurtzeko eta jarraitu beharreko urratsak definitzeko. Jazarpen kasuetan ematen diren irudikapen eta jarduera horiek guztiek argitu egiten dituzte elkarrizketatuek LGTB pertsonen eta errealtateen inguruan erabiltzen dituzten estereotipoak.

Batzuetan uste izaten da eskola-jazarpenaren biktimek “ezberdinak” izatearren jasaten dutela tratu hori, batez ere fisikoki, psikologikoki edo emozionalki (adibidez, lotsatiak direlako) ahulak direla erakusten dutelako, ezaugarri fisiko nabarmenen bat daukatelako (“lodia”, “titi handia”, “kakanarrua”, “itsusia”, etab.), estetika berezia dutelako (betaurrekoak...), edo keinu egiteko zein gauzak esateko modu berezia dutelako. Edo baita ikasteko, harremanetarako, integratzeko eta abarrerako zailtasunak dituztelako ere.

Beste batzuetan, bullyinga eraso jasaten duenaren indar-erakustaldien ondorio gisa ikusten da, gainerako ikasleen arreta deitzen edo haiek gogaitzen zein zirikatzen aritzen baita. Jazarritako pertsonak ere eraso egiten duela uste denean zailagoa izaten da bullying kasuak identifikatzea eta jazarpen-kasuak gehiegikeria-kasuetatik bereiztea: halako pertsonak ongi integratuta egoten dira euren gelan (“erabat onartzen naute”, “guayekin nago”, “primeran” tratatzen naute, E-3), baina eraso edo gehiegikeriak maila altuagoetako nagusiengandik jasaten dituzte.

Gainera, jaso ditugun zenbait baldintza eta egoeratan ez da bullyinga ematen denik uste, nahiz eta generorolak ez bete: modu positiboan baloratzen da kirola egitea (futbola gustuko duten eta jokatzeko dakiten neskak), nota onak ateratzea edo argiak izatea, pertsonalitate handia erakustea (zentzuzkoak eta isilak izatea edo euren buruengan konfiantza izatea), interes propioak edukitzea. Irakasleetako batzuen ustez, beren joera (homo)sexuala argi erakusten duten ikasleak “ausartak” dira, eta autoestimua altua eta familiaren laguntza izanez gero aurrera egingo dute.

Bullying kasuak ohikoagoak izan daitezke nerabezaroan bizitzako beste garai batzuetan baino: eskola-ibilbide osoan diskriminazioa jasan duten pertsonen jazarpena areagotu egiten da, edo zenbait espazio eta elkarrizketatik kanpo uzten dira ordura arte taldean onartu izan diren pertsona batzuk. Halako egoerak ekiditeko, irakasle batzuen ustez LGTB ikasleak eurak egiten dira “ikusezin, (...) negua igaro arte biziraun udaberri atseginagoa loratu bitartean” (E-1).

Nerabezaroa garai kritikoa da, baita bullyingari dagokionez ere, beraz, guztiak bat datoz prebentzioak askoz lehenago hasi behar duela esaterakoan.

Badakite ikastetxea etsakeria edo bortxakeriazko toki bat izan daitekeela, eta “harroa dena eta ‘niri ez horrela begiratu, gero!’ esaten duena ez du inork berriro zirikatzen” (E-6). Helduek ez dituzte beti ulertzen parekoen arteko harremanak eta kodeak, beraz, ez dute beti umeen kontuetan nahastu behar. Elkarrizketatuen ustez, parekoen arteko haserre soil bat bullying kasu batekin nahasteak ondorio negatibo izugarriak izan ditzake, batez ere guztiz ikaratuta eta jazarpenaren aurrean beti erne dauden gurasoak tartean sartzen direnean horretarako pisuzko arrazoirik egon gabe. Ikastetxeetan beti egon izan dira irainak eta erasoak, eta beti egongo dira, baina oraingoan oihartzun mediatiko handiagoa izango dute eta gizartearengan alarma handiagoa piztuko dute.

Funtsean, badago gailentzen den ideia bat: nerabeen kodeak ezin dira helduen parametroekin interpretatu, eta kontuan hartu behar da harremanok zein testuingurutan gertatzen diren. Horrexegatik zenbait protokolo

ez dira eraginkorrak, izan ere, orokorrekiak eta sistematikoegiak dira (Eusko Jaurlaritzaren elkarbizitza-protokoloa aipatu dute), ez dituzte ikastetxearen funtzionamendua eta haren gabeziak kontuan hartzen, eta ez dituzte jazarpen-motak, erasotako pertsonak, erasotzaileak, familiak eta ingurune soziala eta antzekoak zehazten.

ANIZTASUN AFEKTIBO-SEXUALEAN HEZTEA: ZAILTASUNAK ETA GAITASUNAK

Hezkuntza-eginkizunak

Hezkuntza-komunitatea eta haren eginkizunak zeharo aldatu dira azken urteetan. Batzuetan aldaketak eskolak berak eragiten ditu, eta beste batzuetan gizartean gertatzen diren aldaketak izaten dira eginkizunotan eta ikastetxeetako agendetan eraginik handiena izaten dutenak.

Hona hemen hizpide dugun gaiaren inguruan aipatu dizkiguten aldaketarik nabarmenenak:

- Familia-aniztasun handiagoa.
- Batasunetik kanpoko immigrazioaren gorakada.
- Gorputzaren eta estetikaren birbalarizazioa.
- Komunikabideen eta teknologia berrien eragina.
- Genero-rolen inboluzioa.

Familia-aniztasuna eta sexualitatea bezalako gaiak garrantzitsuak dira elkarriketatutako pertsonen aburuz, baina homofobia edo LGTB errealitatea ez dira lehentasunezko gaiak kasu batean ere.

Horren inguruan, denak bat datoz: ikastetxeak hezkuntza-eginkizunekin saturatuta daude eta baliabideak falta dira (baliabide materialak, denbora, giza baliabideak...). Eginkizun horiek partekatu ahal izateko gizarte-eta hezkuntza-arloko beste agentzia eta eragile batzuk areagotzeko edota sendotzeko premia ere azpimarratu dute. Kasu horretan, familia hartzen da eragile sozializatzaile garrantzitsuentzat.

Heteronormatibotasunak eskolaren eta familiaren arteko harremanak zailtzen ditueneko bi kasu aipatu nahi ditugu:

Lehenengo kasua ikasle etorkinen edota jatorri ezberdineko ikasleen portzentaje altuak dituzten eskolak dira (E-4 eta E-6), horietan estereotipoak eta orokortzeak nahastu eta indartu egiten baitira: uste izaten da berehalako interes ezberdinak eta presazkoagoak diren premiak dituztela.

Bigarren kasua landa edo erdi-landa eremuetan kokatutako eskolena da (E-10), halakoetan udalak, elizak eta herritarrek presio handiagoa egiten baitute. Ikastetxeek jarrera argia izaten dute aniztasun afektibo-sexualari dagokionean: ikastetxean bertan onartzen da, baina ez dadila kanpoan jakin. Berrero ere, hortxe dago homosexualtasuna hiriko bizitza modernoari loturiko zerbait dela dioen ideia.

Estereotipo eta jarrera horiek ez daude migrazio-fenomenoetara edo landa-eremuetara mugatuta. Bisitatu ahal izan ditugun beste ikastetxe batzuetan ikusi dugu familiak ez zutela nahi aniztasun afektibo-sexualari buruzko gaiak lantzerik.

Hasieran ukatu egiten duten arren gurasoek ez dutela halako gairik lantzea nahi, bisitatu ditugun 10 ikastetxetik 5etan aurkakotasun edo eragozpen horiek aurkitu ditugu. Jarraian kasu konkrituak eta ikastetxeen erantzunak laburbilduko ditugu:

- E-6: familiak ez du inolaz ere nahi bere semeak gelan aniztasun afektibo-soziala lantzerik. Ikastetxeko orientatzaileen ustez gurasoek ez zuten "jarrera edo ideia argirik", "despistatu egingo ziren", izan ere, familia horretako beste seme-alaba batzuek egin zuten ikastaroa. Ikastetxeak ez ikusiarena egin zuen "kasu bakarra", "behin gertatutako" zerbait, "garrantzirik gabea" zelakoan. Azkenean, ikaslea liburutegira bidaltzen zuten ikastaroa ematen zen bitartean.
- E-3: Prebentziorako eta kondoia erabiltzeko "póntelo-pónselo" kanpaina dela eta, familia bat kexu agertu zen "alde guztietan preserbatiboak" egongo zirelakoan, kanpaina horrek helaraz zezakeen promiskuitatea adierazi nahian, behar bada. Orientatzaileek informazio gehiago eman zieten, eta Eusko Jaurlaritzaren kanpaina bat zela argitu zieten, hots, erakundeek antolatutako kanpaina bat zela eta beren oniritzia zuela. Azkenik aurrera egin zuten kanpainarekin.
- E-8: Adoptatutako alaba bat duen ama bat kexu agertu zen ikastetxeko zuzendaritzan, ez baitzuen familia-aniztasunaz hitz egiterik nahi alabak etxean gaiaren inguruko galderarik egin ez zezan. Azkenean ez zuten gai hori landu gelan.
- E-2: Ama batek ez zuen 12 urteko semeak sexualitatearen gaia lantzerik nahi, gauza "iluna" delakoan eta semeari interesatzen ez zaiolakoan. Irakaslearen ustez, "mutikoak estualdi larria pasako du" egun horretan klasera joan ezean, eta familiari honakoa erantzun zion: "begira, zuk zure ikuspuntua duzu. Baina gelan 29 gara, eta bakoitzak ezberdin pentsatzen du". Badirudi onartu egin duela tailerra egitea.
- E-5: Familiak ez du onartzen 5 urteko semearen sexu-joera. Umeak bere nahiak hitzez adierazten ditu eta atentzioa ematen aritzen da berak neska izan nahi baitu. Bullying homofoboa jasan ondoren, ikastetxeak protokolo bat aplikatu zuen eta ikaslea beste ikastetxe batera eraman zuten.

Laburpen horretan ikusi ahal izan dugunez, familiak kontra badaude beren iritzia kontuan hartzen da eta sarritan ez da gaia lantzen euren nahiak betetzearren. Irakasleek uste dute lagun-koadrila edo parekoen taldea harremanetarako espaziorik irekiena eta preziatuena dela oraindik ere.

Hala ere, familiek eta lagunek ezin dituztenean adingabeek dituzten behar kognitibo edo afektiboak zein harremanen inguruan dituzten premiak bete, ikastetxea iritzi eta interpretazio ezberdinak entzun eta partekatu ahal izateko espazio pribilegiatu bihurtzen da; badakite ikasgelan gutxi gorabehera eragotzi egin ditzaketela jarrera eta diskurtso homofoboak, eta badakite diskurtso ofizial bat eta ezkutuko curriculum bat daudela.

Irakasleen inplikazioa oso ezberdina izaten da, eta abanikoaren irudia erabilia irudikatu daiteke: muturretan aniztasun afektibo-sexualarekiko inplikazio handia duen eta inolako inplikaziorik ez duen jendea, eta erdian konpromiso-maila ertaina duten irakasleak (gehienak).

Eskola-curriculum eta zeharkakotasuna

Hezkuntza afektibo-sexuala ez dago eskola-curriculumean sartuta, beraz, irakaslearen esku dago gaia zeharka lantzea edo ez.

Inguruneko ikasgaietan (ingurumen naturalaren, sozialaren eta kulturalaren ezagutza) ugalketa eta sexu-organoak ikasten dira, eta paraleloki, tutoretza-orduetan sexualitateaz (E-8, E-5) edo GIB-HIESaz zein STI-

Sexu-transmisioko Infekzioez (E-3) hitz egiten da ikasitakoa osatzeko. Horrela erraza da sexualitatea ugalketara, sexu-jardun arriskutsuetara eta abarrera murriztea.

Beste batzuetan, tutoretza-orduetan arauak eta elkarbizitza nabarmentzen direnean, maila guztietara estrapolatzeko saiakera egiten da, eta horrela litekeena da sexu-aniztasuna tolerantziaz onartu beharreko norbanakoaren aukeratzat hartzea. Antzeko joera ikusi dugu afektibitate- edo familia-aniztasunarekiko errespetu soila erakusten den kasuetan.

Illo horri jarraiki, errespetua bezalako gizarte-gaitasunak lantzeko bide gisa, badago homofobia bere horretan landu beharrean Herritartasunerako ikasgaien modu orokorragoan egiteko joera. Ikuspuntu horretatik, homofobia diskriminazio modu bat gehiago baino ez da, beraz, ez da sexu-arrazoiengatik diskriminazioa bera lantzen; eskubideak aitortu behar direla irakasten da, modu abstraktuan, baina eskubide horien benetako aplikazioa ez da horrenbeste lantzen, eta horixe da bizitzeko, sentitzeko eta pentsatzeko moduak irekiago egiten dituen.

Elkarrizketatutako pertsonen zeharkakotasunaren beste eragozpen batzuk ere komentatu dituzte esplizituki:

- Gaiari ez zaio modu kontziente, sistematiko, tekniko edo konkretuan heltzen. Proiektu komuna eduki beharrean gaitasunak sakabanatu egiten dira eta edukiak modu orokorrean eta azaletik lantzen dira.
- Era berean, ez dago perspektiba integralik, gaiok hezkuntza-ziklo jakin batzuetako ikasgai konkretu batzuetan baino ez baitira lantzen, nahiz eta identitate-prozesuak etengabeak izan (hau da, ez dira adin edo ziklo akademiko jakin batean gelditzen).
- Baldintzatzaile asko ditu: irakasleen inplikazioa, sentsibilitatea, ezagutza edo prestakuntza, gaiaren inguruan dituen estereotipo edo aurreiritziak, sexualitatea nola bizi duen, etab.
- Zeharkakotasuna gatazkak "momentuan" konpontzeko erabiltzen da, ez prebentzio gisa.

Zeharkakotasunaren gaitasunik nabarmenenak honakoak dira:

- Edozein mailatan eta edozein unetan landu daiteke.
- Prebentzio-tresna moduan erabili daiteke gatazka konkretu, puntual baten edo eguneroko gatazkaren baten aurrean.
- Gaiok ikuspuntu teorikotik eta ikuspuntu emozional edo afektibotik lantzeko aukera ematen du.
- Formalki, irakasle guztiak daude inplikaturik.

Aniztasun-tailerrak

Ikusi berri dugun bezala, hezkuntza afektibo-sexuala ez dago eskola-curriculumean sartuta, baina ikastaro eta tailer kopurua nabarmena da. Horien artean honako hiru hauek bereiz ditzakegu:

- Garapen afektibo-sexualarekin harreman zuzena duten tailerrak: hezkuntza afektibo-sexuala, sentimenduak eta emozioak, jabeak, sexu-harremanak, familia-aniztasuna, genero-berdintasuna, genero-indarkeria, anatomia, fisiologia, antisorgailuak, gaixotasun benereokak...
- Garapen afektibo-sexuala zeharka lantzen duten tailerrak: baloreak, arauak, errespetua, jolas sinboliko edo kooperatiboak, elkarbizitza, kohesioa, gatazken konponketa...

- Bestelako saioak: Ikasketa-teknikak edo gaitasun kognitiboetarako teknikak; orientazio profesional edo akademikorako saioak (bereziki batxilergoan)...

Halako tailerrak ikastetxetik kanpoko eragileek eskaini, antolatu edota eman ohi dituzte tutoretza-orduetan.

Ikastaro eta tailer horien alde onen artean honakoak nabarmendu behar dira:

- Ikastetxetik kanpokoak eta gaian espezialistak diren eragileak direnez (gizarte-hezitzaileak, psikologoak...), esperientziak, ideiak edo zalantzak partekatu ahal izateko konfiantzazko giro erosoak bermatzen dute.
- Eskolaren eta ingurunearen arteko harremana eta agentzia eta agente ezberdinen arteko lankidetzak areagotzen dute.
- Egungo hezkuntza arautu formalean ohikoak ez diren material didaktiko praktikoak erabiltzen dituzte.
- Ikasleen motibazioa, arreta eta inplikazioa areagotzen dituzte.

Ikastaro eta tailer horien alde txarren artean honakoak nabarmendu behar dira:

- Ikastetxeko langileek ez dute modu aktiboan parte hartzen tailerren garapenean.
- Adituak ez dira erreferente bihurtzen ez direlako hurbilekoak eta ez daudelako beti ikastetxean.
- Aldizkakoak eta konkretuak izaten direnez, aniztasun afektibo-sexuala salbuespeneko zerbait bailitzan tratatzen jarraitzen da (“gaur norbait etorriko da-z hitz egitera”).
- Agendak markatzen dituen lehentasun iragankorrak oinarri hartuta antolatzen dira.
- Eragile bakoitzak unean-unean dituen baliabide ekonomikoak, materialak eta giza baliabideak menpe daude.
- Azkenik, ikastetxeko zuzendaritzaren edo orientazio-zerbitzuaren inplikazio-mailaren arabera izaten da tailerrok egitea edo ez egitea.

Gizarte- eta hezkuntza-arloko politikak eta esperientziak

Curriculum ofizialaren barruan hezkuntza afektibo-sexuala zeharka lantzen eta tutoretza-orduetan mota guztietako tailerrak, ikastaroak edo saioak garatzen saiatzeaz gain, gizarte- eta hezkuntza-arloko bestelako politikak ezartzearen garantzia ere nabarmendu nahi dugu.

Aurrekoekin alderatuta, esperientziok ezberdinak dira hezkuntza-komunitatearen zati handi bat tartean hartzen dutelako, iraupen luzeagoa izan ohi dutelako, arazoei errotik egiten dietelako aurre eta baterako konponbideak bilatzen saiatzen direlako:

- Gizarte- eta hezkuntza-arloko eragileen prestakuntza.
- Ingurunearekiko hartu-emanak areagotzen dituzte: gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintza dinamiko eta partaideak egitea ikastetxeetatik kanpo.
- Ikasleen gaitasunak garatzera eta euren autoestimua hobetzera bideratutako ekintzak.
- Ikastetxean bullying egoerak ekiditeko politika konkretuak: prebentziorako protokoloa. Protokoloan bullyingari buruzko inkesta anonimo bat egiten da taldearen erradiografia egin eta bizikidetzak-arazoei aurrea hartu ahal izateko (E-3).

- Familiekiko komunikazio eta harremanetan erabiltzen den hizkuntza zaintzea.
- Ikasgelan kultur arteko proiektuak garatu ahal izateko baliabideak bideratzea ikastetxeetara.

Hezkuntzarako materialak edo/eta euskarriak

Ikastetxeetan hezkuntzarako materialak edo/eta euskarriak eskuratu eta erabiltzeko aukerari dagokionean ongi bereizitako bi alderdi aurkitu ditugu: material asko duten profesionalak eta halakorik ez duten profesionalak.

Zenbait ikastetxek euren materiala prestatzen dute urteetan zehar landutakoa oinarri hartuta. Batzuen ustez, lantzen diren gaiak lanerako materialik dagoen edo ez kontuan hartuta aukeratzen dira, eta batez ere euskarazko materiala falta da. Azken batean, irakaskuntza-lana dauden baliabideek eta irakasleen inplikazioak baldintzatzen dute.

LGTB pertsonaia historikoei, zientzialariei edo artistei dagokienez, denak bat datoz: ez dira testu-liburuetan agertzen edo, gutxienez, ez da LGTB direnik aipatzen. Irakasleetako batek ohartarazi du kontuz jokatu behar dela gai horrekin, izan ere, batzuetan "harira ere ez dator" –baldin eta bere bizitzako alderdi konkretu horri edo gertakariari berari ekarpenik egiten ez badio–, edo garai hartan ez zen gay hitza existitzen, edo batzuetan ez dira erreferentzia onak, batzuek beldurrez eta oinazez bizi baitute edo baitzuten beren nortasun afektibo-sexuala. Kontu horren oinarrian bada gailentzen den beste ideia bat: material eta euskarri guztiek curriculum ofizialaren barruan sartuta egon behar dute.

MATERIAL BERRIAK PRESTATZEKO GOMENDIOAK

Lan honetan zehar azaldu ditugun LGTBri buruzko ikuspuntuak, irudiak eta diskurtsoak zein aniztasun afektibo-sexualean hezteko zailtasun eta gaitasunak kontuan hartuta, hezkuntzarako material berriak prestatzeko zenbait iradokizun helarazi nahi izan ditugu. Honakoak dira iradokizunon ezaugarri nagusiak:

- Aniztasun afektibo-sexualaren ñabardura ugari biltzen dituzten materialak,
- Etapa eta hezkuntza-ziklo guztietarako materialak,
- Ikasleen komunikatzeko moduak, erritmoak, kodeak eta hizkera kontuan hartzen dituzten materialak,
- Ikasleriaren kompetentziak, gaitasunak eta autoestimua areagotzeko edo/eta indartzeko material dinamiko eta partaidea,
- Ikasle guztiei zuzendutako materiala, edozein adin, gizarte-maila, genero, sexu, jatorri/nazionalitate zein erlijio dutela ere,
- Ikastetxearen eta haren ingurunearen berezkotasunei erantzuten dieten materialak,
- Euskarazko material eta euskarriak,
- Testu-liburuetan LGTBen erreferentziak edo/eta aipua sartzea,
- LGTB errealitatea ageriko egingo duten mota guztietako euskarriak sortzea,
- Hezkuntza-komunitate guztiari zuzendutako gidak prestatzea,
- Unibertsitaterako materiala irakaslegaiak kontzientziatzeko eta prestatzeko.

AUKERATUTAKO IKASTETXEEN DESKRIBAPENA ETA ELKARRIZKETATUEN PROFILA

Lagina egiteko orduan irakasleen profil orokorra eta ikastetxeen ezaugarri nagusiak hartu genituen kontuan.

Hona hemen proiektuko fase honetan elkarrizketatutako pertsonen profila, sexuaren eta ikastetxean duten egitekoaren arabera: emakumezko 2 tutore, gizonetzko tutore 1, emakumezko 3 irakasle, gizonetzko 3 irakasle, emakumezko 6 orientatzaile, gizonetzko orientatzaile 1 eta emakumezko 2 zuzendari.

Proiektuan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe-mota ezberdinak sartze aldera, ikastetxe publikoak aukeratzeaz gain (guztira 6) beste batzuk ere aukeratu genituen ikastetxe pribatu/hitzartuen errealitate ezberdinetara hurbiltzeko asmoz: ikastetxerik elitistenak (E-1), ikastetxe erlijiosoak (E-2), eta ikastolak bezalako kooperatibak (E-3, E-7).

Azkenik, aniztasun afektibo-sexualaren inguruko tailerren bat egin zuten ikastetxeek (guztiek E-10 ikastetxeak izan ezik) eta bullying kasu baten ondorioz 14 urteko gazte batek bere buruaz beste egin izana bizi zuen ikastetxe batek (E-8) piztu zuten gure arreta. Proiektua garatzen ari ginela beste jazarpen kasu batzuk aurkitu genituen elkarrizketatuek hala onartuta (E-3, E-5, E-7 eta E-9), baita bullying homofobiko kasu bat ere (E-6).

<i>Elkarrizketa zki.</i>	<i>Ingurunea</i>	<i>Probintzia</i>	<i>Mota</i>	<i>Eredua</i>	<i>Elkarrizketatutako pertsonak</i>
<i>E-1</i>	Probintzia-hiriburua	Gipuzkoa	Hitzartua	A eta ingelesa	a) 2. DBHko tutorea (gizona)
<i>E-2</i>	Probintzia-hiriburua	Bizkaia	Hitzartua/ Erlijiosoak	A, B eta D	b) DBHko erlijio-irakaslea (gizona) c) 4. DBHko irakaslea (gizona) d) 2. Batxilergoko irakaslea (emakumea) e) 2. Batxilergoko irakaslea (emakumea) f) DBHko irakaslea (gizona)
<i>E-3</i>	Probintzia-hiriburua	Araba	Ikastola	D	g) Orientatzailea (emakumea)
<i>E-4</i>	Probintzia-hiriburua	Araba	Publikoa	A	h) Orientatzailea (emakumea)
<i>E-5</i>	Probintzia-hiriburuaren kanpoaldea	Gipuzkoa	Publikoa	D	i) Zuzendaria (emakumea) j) Orientatzailea (emakumea)
<i>E-6</i>	Hiria (handia)	Bizkaia	Publikoa	A, B, D (DBHn) A (Batxilergoan)	k) Orientatzailea (emakumea) l) Orientatzailea (gizona)
<i>E-7</i>	Hiria (ertaina)	Bizkaia	Ikastola	D	m) Orientatzailea (emakumea) n) DBHko irakaslea (emakumea)
<i>E-8</i>	Hiria (ertaina)	Gipuzkoa	Publikoa	D	o) Lehen Hezkuntzako 6. mailako tutorea (emakumea)
<i>E-9</i>	Hiria (txikia)	Bizkaia	Publikoa	D	p) Lehen Hezkuntzako 2. mailako tutorea

					(emakumea)
<i>E-10</i>	Landa-eremua	Gipuzkoa	Publikoa	D	q) Zuzendaria (emakumea) r) Orientatzailea (emakumea)

Iturria: www.hezkuntza.ejgy.euskadi.net

DIAGNOSTIKOA FOCUS GROUP-EKIN PARTEKATZEN

Lan-agiri hau Rainbow proiektuaren barruan dago eta hiru xede ditu: Lehenik eta behin, hezkuntza-munduko bullyingari eta homofobiari buruz egindako diagnostikoa partekatzea eta adingabeen ingurune sozialean eraginik handiena duten agentzien ekarpenak biltzea. Bigarrenik, arazok eskoletara hurbiltzeko biderik egokienak bilatzea eta horiek gauzatzeko elkartasuna bilatzea. Eta azkenik, aniztasun afektibo-sexuala lantzeko hezkuntzako material-motarik egokienari buruz duten iritzia ezagutzea.

Hori lortzeko, agentzia eta eragile ezberdinekin osatutako hiru eztabaida-taldeetatik ateratako ondorio nagusiak azalduko ditugu. Proiektuaren hirugarren fase honetan era guztietako jendeak hartu du parte EAEko hiri hiriburuetan (Gasteizen, Bilbon eta Donostian) egindako hiru saioetan: haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakasleak; gurasoak eta familien elkarteak (GE); LGTB elkarteak; hezkuntza-, gizarte- eta politika-arloko era guztietako kolektibo eta taldeak; eta euskal hezkuntza publikoko administrazioaren instantzia ezberdinak.

Homofobia eta rolak mantentzea

Taldeetan sortu den lehenengo eztabaidetako bat genero-rolen indarraren ingurukoa izan da.

Eredu hetero-normatiboa jarri dute mahai gainean, eta sortu den eztabaidak kontzeptu ugari bildu ditu. Aipatu dute heterosexualtasunean oinarritutako sexu-eredua dela nagusi gure artean, eta eredu horretan sexualitateak ongi mugatuta daudela (Bilboko FG). Neska-mutilei sexudun gorputzaren eredu distorsionatua helarazten dien eredu falozentrikoa (eta koitozentrikoa) ere aipatu dute.

Mota horretako distorsioez gain, taldeetan adostasun handia dago sexualitatea oraindik euskal gizarteko tabu handietako bat dela esaterakoan. Ohartarazi dute gaiaz gehiago eta modu zabalagoan hitz egin arren ez dela kontu seriotzat hartzen. Sexualitateaz hitz egiterakoan txantxetan edo/eta desberdina dena gutxietsita egiten omen da (Gasteizko FG).

Horrenbestez, adingabeek genero-rol horiek mantentzeak edo/eta indartzeak kezka sortzen du. Talde guztiek ongi dakite umeei txikitatik markatzen zaizkiela gustuak (arrosa koloreak neskontzat, urdinak mutilentzat), zaletasunak (kirolak, jolasak) (Gasteizko FG), tokiak (ikasgelan eserita daudenean, aisialdiaz gozatzen ari direnean, etab.) (Donostiako FG), neskontzako debekatuta eta mutilentzako baimenduta dagoena (Bilboko FG), dena ere sexuaren arabera.

Nesketan, emakumeek gero eta gehiago jasan behar duten irudiarekiko esklabotza (Donostiako FG) eta “neurri jakin batzuk dituen eta gozo hitz egiten duen emakume eder eta politaren” eredu zurruna (Gasteizko FG) nabarmendu dituzte. Kikilagoak direla ere adierazi dute.

Mutilen kasuan, lortzen zaila den maskulinitasun-ideal zorrotza dago: kirolari onak izatea, “matxoak” izatea, irain homofobo edota sexistak erabiltzea edo sexuaz hitz egitea gainerakoek “hori ergel xamarra da” pentsa dezaten.

Gauzak horrela, argi dago prototipoak mantendu egiten direla eta zenbait kasutan, baita indartu ere. Eta genero-rol horiek mantentzea, hetero-sexismoa eta matxismoa dira, hain zuzen, homofobia indartzen duten ereduak. Ezin da ahaztu arau nagusitik irteten dena nabarmen uztea edo jazartzea eta “probokatzailatzat” jotzea (Gasteizko FG, Bilboko FG) homofobia-adierazpen bat dela, eta baita bullying homofobikoaren faktore nagusietako bat ere.

Bullying gehiago eta “tolerantzia” handiagoa: Ezberdintasunen normalizaziorantz?

Ikusi berri dugu taldeek zer-nolako harremana ezartzen duten sistema heterozentrikoan ematen den homofobiaren eta matxismoaren artean. Hala ere, hiru taldeen ustez, gaur egungo egoera nabarmen hobea da. “Nola ez!”, “Inork ez du kontra dagoenik esango!” (Gasteizko FG). Badakite homosexualitateaz hitz egiterakoan tolerantzia eta errespetua hitzak mundu guztiaren ahotan direla. Politikoki zuzena dena ere bai. Horiexek dira, hain zuzen, taldeetan eztabaida sutsuak piztu dituzten ardatzak.

Tolerantzia formal handiagoa dago, baina ez da aldaketarik sumatzen jarrera konkretuetan (Bilboko FG). Euren ustez, sexu-aniztasunaren inguruan ez ezik, gazteak beste guztiaren inguruan ere oldarkoragoak dira, eta horrek zalantzan jartzen du gazteak irekiagoak direla esaten duen diagnostikoa.

Taldeek agerian utzi nahi izan dute oldarkortasunak izan duen gorakada kuantitatibo eta kualitatiboa: irainak, hitzezko indarkeria edo indarkeria psikologikoa; lesbianen arteko indarkeria –talka egiten dute gizon erasotzailearen irudiarekin–; bullyinga, ziberbullyinga... (Bilboko FG, Donostiako FG).

Gasteizko taldeak “maskara” horretaz ohartarazi nahi izan gaitu: homofobia ezkutatu egiten da gezurrezko errespetu formalaren atzean, eta homosexualitatea ezohikoa, urrutikoa edo besterena bailitzan definitzen da.

Hala ere, egungo egoera ezin da duela hamarkada batzuk egondakoarekin konparatu, eta baloratu egiten dira arlo legalean LGTB kolektiboaren alde emandako aurrerapausoak.

Eztabaida piztu egiten da, izan ere, batzuek sistema aldaketaren aldeko apustua egiten duten bitartean besteek aniztasuna apurka-apurka normalizatzearen alde egiten dute. Azken ikuspuntu hori defendatzen dutenek modu positiboan baloratzen dituzte aurrerapauso txikiak eta oso baikor ageri dira. Iritzi-ezberdintasunak puntu garrantzitsuak dira eztabaida hauetan, baina badirudi alde guztiak ados daudela puntu batean: talde guztiek kritikatu dute ustez “tolerantea” eta “berdintasunezkoa” den jarrera hori.

Eztabaida horren inguruan, taldeek kontuan hartzeko moduko premiazko hiru zeregin aipatu dituzte:

- 1) “Heterosexualtasunean zentratutako sexu-eredua da nagusi gure artean, eta modu ezberdinetan gizon/emakume izateko edo hori bizitzeko sexu-eredu berria sortu nahian gabilta. Baina... zein?, nola?... Bideari ekin diogu, mundu guztia ari da lanean. Hortxe dago eztabaida” (Bilboko FG).
- 2) “Nagusi den eredu heterosexista-heteronormatiboari aurre egingo dion kontsigna argi eta laburra behar dugu, emakumeen kontrako indarkeria lantzeko egin den bezalaxe” (Donostiako FG).

3) Gai honen inguruan “erantzun kolektibo eta bateratua” behar dugu (Bilboko FG).

Garai berriak, hezkuntza-ikuspegi berriak

Diagnostikoan agertu ez arren taldeetan eztabaidatu den beste gai bat baloreetan eta ezagutzan hezteari buruzkoa da.

Ezagutzetan ez ezik baloreetan, trebezetan eta abarretan hezten duen eta eginbeharrak eta betekizunak banatzen dituen hezkuntza integralari buruz hitz egin dute eta zalantzan jarri dute irakasleen irudia.

Irakasleek eta hezitzaileek era guztietara, modu esplizitu zein inplizituan, hezten dute. Zailtasunen artean, baloreetan heztea oso kontzeptu zabala dela, ikastetxeak oso desberdinak direla edo irakaslerik nagusienei kostatu egiten zaiela eta ez dutela berrikuntza horren aldeko apusturik egiten aipatu dituzte, besteak beste.

Bestalde, familiak etxean helarazten dituen baloreei eta eskolan irakasten diren ezagutzei ematen zaien garrantziaz eztabaidatu dute (Bilboko FG). Komunikabideen eta teknologia berrien gorakadaren ondorioz, eskola eta familia galtzen ari dira elementu sozializatzaile gisa zuten indarra. Bideojokoak, telebista, telesailak, zinema eta antzeko agentzia sozializatzaile berriek eredu eta erreferenteak ematen dizkiete gazte eta nerabeei (Gasteizko FG), eta erreferente horiek oso rol maskulino eta femenino markatuak dituzte (Bilboko FG).

Familiak eta beren hezkuntza-eginkizunak

Gizarte- eta hezkuntza-arloko ikuspuntu berrien jarduera-eremuekin lotura estua duenez eta taldeetan gehien planteatu den eztabaidetako bat denez, familiaren eginkizunek aparteko kapitulu bat merezi dute.

Gehienek ustez, “umeak oso naturalak dira”, dena naturaltasun handiz bizi dute, eta “arazoa gurasoak dira” (Bilboko FG). Planteamendu horren arabera, familiak dira agentzia sozializatzaile nagusiak, eta umeak eskolan etxean ikusitakoa islatzen duten tabula rasak dira.

Familiak eta irakasleek elkarri hartzen diote kargu. Jarduera-fokua familiak dira, baina gauza jakina da “etxera iristea zaila” dela (Bilboko FG) eta eskoletan jardutea nabarmen errazagoa izan daitekeela; gainera, azken hori esparru aproposagoa izan daiteke. Haur hezkuntzako irakasleek, aldiz, “errora joan behar” dela ohartarazten dute.

Puntu horretan, Bilboko taldeak aipatu du gaur egungo familiak ez dutela behar bezalako prestakuntzarik. Luze eta zabal hitz egin dute egun eskolatuta dauden ikasleen gurasoen heziketari buruz. Guraso horiek ezagutzetan hezi zituzten, beraz, azaldu egin behar zaie zer esan nahi dugun gaitasun afektibo-sexualez ari garenean.

Interesa, jakin-mina, kezka eta beharra dira egungo familien eta familia horiek sexologia-arloko profesionalakiko dituzten harremanen egoera definitzen duten gako-hitzak.

Aniztasunaren alde egiterakoan eskolak duen ezinbesteko eginkizuna

Esan beharra dago adostasun handia dagoela eskolaren zereginei dagokienez. Arlo afektibo-sexuala ez da lehentasunezkoa eskoletan, baina izan beharko luke: hau da, eskolak ezin ditu ardura horiek saihestu eta horiei heltzen hasi behar du, beste arazo batzuekin egin duen bezalaxe.

Izan ere, familia-aniztasuna eskoletan aurki daitekeen errealitate bat da dagoeneko (Bilboko taldean lesbianen artean “baby boom” deritzona gertatzen ari dela ere esan dute), eta eskolaren eta ingurunearen arteko hartu-emana bermatzeko ezinbestekoa da eskolak errealitate hori onartzea. Guraso homosexualdun familietako umeak, euren familiak eta LGTB ikasleak bakartuago egon izan dira eskolan, gutxiengo direnez ikastetxeak “arazoa zokoratzeko joera” izaten baitu.

Irakasleei dagokienean, uste dute prestakuntza falta gaiari jaramonik ez egiteko ohiko aitzakia izaten dela (prestakuntza-garaian heziketa espezifikorik jaso ez izana, eta gaur egun, prestakuntza falta edo/eta segurtasun falta).

Ez da ahaztu behar hezkuntza-zereginen saturazioak eta irakasleen prekarietateak, bereziki ordezkapenak egiten dituzten langileenak, nabarmen txartzten dutela irakaskuntzaren kalitatea, zentzu guztietan egin ere.

Bestalde, ikastetxe-moten aniztasuna eta bakoitzak bere ingurunean (hiriak eta herriak, bereziki) bizi dituen arazoen aniztasuna aintzat hartuta, mota guztietako iritziak aurkitu ditugu. Ikasle edo irakasle moduan izandako esperientzietan oinarrituta (Bilboko FG eta Donostiako FG, hurrenez hurren), uste dute eskola erlijiosoetan baloreetan hezteak zaila dela (“gutxi egiten da... eta gutxi egin daiteke”). Beste batzuek ezusteko positiboa hartu dute: “aurreiritziz beteta joan izan naiz eskola erlijioso eta pribatuetara, eta egia esan lan handia egiten dute ziklo guztietan, piloa inbolukratzen dira”; “ikastetxe alemaniarra, erlijiosoa... baina eskola publikoek bezalaxe lantzen du gaia” (Gasteizko FG).

Bada taldeetan antzeman duten eta hezkuntzan, aniztasunean eta bullyingaren kontrako jardueretan eragina duen alderdi bat, babes sozial eta instituzionalik eza, alegia, eta hori maila guztietan igartzen da.

Eskolan botere-harremanak daudela ikus daiteke (bai parekoen artean baita lankideen artean ere), eta ikusten da, baita ere, taldeak ez diela jarrera eta balore homofoboek kontra egiten; are gehiago, toleratu edo babestu egiten ditu, eta zenbaitetan zoriondu ere egiten ditu jarrera pasiboa erakustearren. Ikastetxearen inplikazioa eta irakasleen jarrera premia larriz landu beharreko kontuak dira.

Alderdi horien guztien inguruan zera errepikatu dute: “esparru horretan azterketa sakona egin behar da, hasi ikastetxeetan eta hezkuntzan batera diharduten eragile guztietara iritsi arte: elkarrekin, GE...” (Bilboko FG).

ARAZOA GAINDITZEKO BIDEAK ADOSTEN INGURUNEETAN ETA ERAGILEEKIN

Ikastetxeak

Ikastetxeek aniztasun afektibo-sexuala erakusten eta garatzen hasi behar dute. Errealitateok hobeto ezagutzea eta agerikoago egitea ezinbesteko elementua da. Onena ikastetxeko irakasleak eta ikasleak beren nortasun, joera edo lehentasun/nahi afektibo-sexuala zein den esatera behartuko ez lituzkeen normaltasun edo naturaltasun egoera bada ere, gehienek uste dute LGTB errealitatea erakustea (behar dituen tokia eta ahotsa ematea) eta horretarako bide egokiak bilatzea ezinbestekoa dela.

Taldean iritzi, honakoak dira eskolan modu esplizituan landu beharreko gairik garrantzitsuenak:

- Sexu- eta afektibitate-joera, nortasuna eta desioa bereizita (Gasteizko FG), bakoitzak bere izaera, sexualitatea eta gorputza eraikitzeke erraztasunak emanda eta generoa desegituratuta (Donostiako FG).
- Elkarbizitza lantzea errespetua eta elkartasuna oinarri hartuta, segregazioa baztertuta eta espazioak elkarbanatuta, horrela individualismoari aurre egin ahal izateko, eredu horrek erasotzaileak indartzen baititu (Bilboko FG).
- Autoestimua, jabekuntza eta segurtasuna sendotzea bullyingari aurre egiteko eta pertsonen zein kolektiboen erabateko garapena erakusteko modu gisa. Hiru adibidek irudikatzen dituzte balore horiek garatzeko eskatzen duten egoerak.

Gaiok heltzeko moduari dagokionez, bi bide iradoki dira. Alde batetik, ikasleak egoera horretan jartzea jolas sinboliko eta partaideak erabilia (rol-jokoak, antzerkia) eta hizkuntza zainduta. Bestetik, gaiok bereiz tratatzea, alde batetik mutilek gizonezko tutore batekin eta bestetik neskek emakumezko tutore batekin, eta ondoren ideia horiek talde mistoetan partekatzea. Beldurrek eta lotsek lanari baliorik ez kentzeko ezinbestekoa izango da alde aurretik konfiantza-giroa sortzea.

Ez dira ikasleei bideratutako estrategiak soilik pentsatzen; irakasleek ere gaiok lantzeko tarteak eta espazioak bilatu behar dituzte. Klaustroa da halako gaiez hitz egiteko tarte eta tokirik egokiena (Bilboko FG). Gainera, azpimarratu dute komenigarria dela egiten diren esku-hartze guztiak, curriculumekoak zein zeharkakoak (tailerren bidez) izan, “zentroko planean sartuta” egotea.

Ikastetxeek duten erronkarik garrantzitsuenetako bat pasibotasunetik aktibitateera igarotzea da.

Horren inguruan, kritikatu egin dute batzuetan eraso jasaten dutenak izaten direla zigorra jasotzen dutenak (ikasgelatik aterata edo beste ikastetxe batera eramanda), ez erasotzaileak (Donostiako FG). Eragile bakoitzak bere zereginak betetzen ditu eta erantzukizun jakin batzuk ditu. Hona hemen horietako batzuk:

- Irakasleak, oro har, erreferenteak dira eta ezin dute euren ardura saihestu nahiz eta prekarietate-egoeran egon. Ezinbestekoa da irakasleei prestakuntza ematea “arazoa iristen denean gainditu ez zaitzan”, bereziki “arazo bat duela konturatu eta aholkularitza bilatzen duenean bakarrik kezkatzen bada” (Bilboko FG).
- LGTB irakasleei dagokienez, hurbileko edo gertuko eredu izan daitezkeenez, garrantzitsua litzateke beren ikastetxeetan erreferente izatea (Bilboko FG) eta pertsona horiek ageriko egiten laguntzea (Donostiako FG), baina hezkuntza afektibo-sexualaren erantzukizun osoa euren esku utzi gabe.

- Ikastetxetik kanpoko adituak; eskolako egunerokotasunetik at daudenez, ikasleak harberagoak izaten dira euren aurrean, baina ezin diete erantzukizunik kendu irakasleei (Gasteizko FG). Oso beharrezkoak dira "ez denean ezer egiten; nik eskertuko nuke, ikastaroa ikustera joango nintzateke", "ikasleek asko eskertzen dute", euren etorrera "horma gris batean koloretako puntuak jartzea" bezalakoa da (Donostiako FG).
- Ikastetxeko bertako adituak. Onena eskoletan sexologia-zerbitzua egotea litzateke, intimitzat jo daitezkeen gaietan ikasleen erreferente izan daitezkeen aholkulari bat (Donostiako FG); orientazio-zerbitzua saturatuegi dago halako gaiei aurre egin ahal izateko.
- Parekoen arteko bitartekotza-taldeak. "Liderrak onartzen ez duenean ez da bullyingik egoten. Geldiarazi egiten du. Ikastetxean sortzen diren taldeekin egin behar da lan".

Familiak eta GEak

Diagnostikoa azaltzerakoan aipatu dugu familiak ezinbesteko agentziak direla seme-alaben hezkuntzarako. Beren erantzukizunak ere saihestezinak dira.

Berriro ere nabarmendu dute hori eta, bullying homofobo eta transfoboa jasan duen mutil baten amaren hitzetan, "arazoa ume jazartzaileen gurasoak dira, ez baitute ezer jakin nahi 'ez, nire semea ez' esanaz" (Bilboko FG). Beste bullying kasu batzuei dagokienean, aipatu izan da "biktimei 'probokatzeari' leporatzen" zaiela, eta "arazo baten aurrean, GEak ez zirela ez biktimaren, ez erasotzaileen ez inoren senitartekoak hurbildu" (Gasteizko FG). Garrantzitsua da helduen beldurrak eta tabuak eta familiek ereduak guraso izateko duten presioa berriro ere nabarmentzea.

Gauzak horrela, familien erantzukizunak, eraginak eta esperientziak kontuan hartuta, familientzako jardunbide egoki batzuk iradoki dira:

- "Gurasoek komunikazio naturala izan behar dute, ez baitute halakorik izaten" (Bilboko FG).
- Babesa eta estimuak. "(Gure amak esaten zidan) garrantzitsuena zu zoriontsu izatea da; hobeto da bizitza osoan gainerakoei aurka egin beharra bizitza osoa norbere buruari aurka egiten ematea baino (Donostiako FG).
- GEak modu aktiboan parte hartzea gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko lanetan eta ikastetxeetako egunerokotasunean.
- Bestelako familia-ereduak erakustea eta laguntzea. Ama heterosexuala izanda alaba lesbianarekiko duen esperientzia kontatzen duen "ama moderno" baten bloga aipatu dute.

Elkarteak

Hona hemen LGTB elkarteen inguruan eztabaida-taldeak aipatu dituzten zenbait bertute:

- Kanpainak, identifikazioak. "Topaketak egitea, eurekin biltzea bakarrik senti ez daitezkeen, arraroak ez direla eta eurek bezalako jende gehiago dagoela ikus dezaten" (Bilboko FG), izan ere, horrek "zorigaitzoko ez izaten laguntzen die, eta ez da gutxi" (Donostiako FG).

- Biztanleria kontzientziatzea eta LGTB errealitateak ageriko egitea. “Ni herriko plazan ezkondu nintzen. Batzuek onartzen dute eta besteek ez, baina ‘hau beti-betikoa da’ edo ‘Zu, zu zara, ez da ezer aldatu’ esaten dute” (Bilboko FG).
- Prestakuntzan eta aholkularitzan esperientzia handia, baita irakasle batzuekin eta gero eta familia gehiagorekin ere (Gasteizko FG).

Bestalde, hezkuntza ez-formalaren eta hezkuntza afektibo-sexualaren kontu honetan erantzukizuna duten beste eragile sozializatuak batzuk aisialdiko edo beste edozein motatako taldeak dira. Talde horien bertuteen artean honakoak aipatu dituzte:

- Lasaitasuna eta dibertsioa ezaugarri dituzten espazioak eta tarteak partekatzea. “Kirol-taldeak inplikarazi behar dira, hortxe dibertitzen baitira umeak” (Gasteizko FG).
- Beste jatorri, adin, sexu... batzuetako parekoekin partekatzen dituzte bizipenak. Nesken partaidetza ere izaten duen “Legazpiko lehiaketa” aipatu dute (Gasteizko FG).

Beste erakunde eta kolektibo mota batzuk, esaterako, emakumeen edo/eta feministen elkarteak edo gazteen taldeak (gazte-asanbladak, adibidez), LGTB aldarrikapenak babesteko prest agertzen diren eragileak izaten dira.

Gainera, mota guztietako adituak ditugu, esaterako sexologoak, eta eragile aktiboak dira prestakuntzaren, orientazioaren eta hausnarketaren inguruko kontuetan.

Administrazio publikoa

Planteamendu orokorrean desadostasun txikiak agertzen dira curriculum ofizialeko erritmoei eta eragileei dagokienean. Alde batetik, arazoa estrukturala dela uste duten eta heterozentrikoa ez den curriculum baten, hots, curriculum berri baten aldeko apustua egiten duten eragileak eta agentziak daude. Bestetik, zenbait agentzia eta eragile erroan, egituran, sisteman jarduteaz gain aldaketa txikien bidez parte hartzearen aldeko apustua egiten dute:

- Aniztasuna curriculumaren bidez gauzatzeko estrategiak bilatzea. “beste gauza bat da gero nola egingo den honen lurrartzea. Curriculum horren da handia, ezen beti egongo baita lantzen ez den gairen bat” (Gasteizko FG).
- Aniztasuna testu-liburuetan islatzea. “Testu-liburuetan ez da LGTB pertsonaiarik agertzen, baina bai ordea pertsonaia heterosexualak (Tchaikovsky musikari entzutetsua aipatu du) (...) nahiz eta datu hori garrantzitsua ez izan; behar bada kendu egin beharko litzateke” (Donostiako FG).

Bullyingari eta bullyingaren kontrako protokoloak buruz, nahiz eta taldeek ez duten nahikorik hitz egin gai horren inguruan: ikastetxeak saturatuta egoten dira plan konplexu asko egin nahi izaten dituztelako, baina plan horiek ez dira beti arretaz prestatzen edo ez dira aplikatzeko errazak izaten. Aplikaziorako bi neurri ezar daitezke:

- Eskola bakoitzeko bizikidetza-planak aniztasuna kontuan hartzea (Bilboko FG). Beharrezkoa izanez gero, hezkuntza-sailak ezar ditzala hori bermatzeko aurreikusitako jarraibideak.
- Babes instituzionala bermatuta egon dadila, administrazioak pentsamoldea alda dezala eta jarduten dutenak txalotu ditzala.

Azkenik, arlo juridikoari dagokionez, premiazko bi zeregin aipatu dituzte:

- LGTB pertsonen eta kolektiboen agerikotasuna eta ezagutza bermatzea. “Badirudi irakasle guztiak heteroak direla. (Eta baita politikariak, futbolariak... ere, gaineratu dute). Eredu edo erreferente izan behar dira” (Bilboko FG).
- Unibertsitatean heziketa afektibo-sexuala eman dadila proposatzea, bultzatzea edo babestea.

MATERIALEI DAGOKIENEZ

Mota guztietako iritziak daude egungo materialen inguruan. Alde batetik, batzuen ustez materialak duela urte batzuetakoak dira eta zaharkituta daude (Bilboko FG), edo eskasak dira eta lotsa ere ematen du haiek erabiltzeko (esaterako VHS formatuko zenbait bideo) (Gasteizko FG). Beste aldean, Donostiako taldeak publiko zabal bati zuzenduta dagoen eta formatu ezberdinetan jasota dagoen material ugari aipatu du, adibidez: dokumentalak, film laburrak eta pelikulak; euskarazko liburu-bildumak; etxeetan zein ikastoletan aurki daitezkeen pailazo ospetsu batzuen kartak, bideoak, jokoak eta abar; LGTB trivial mahai-jokoa...

LGBTB elkarteak dira erreferentzia gehien aipatu dituztenak eta material espezifiko hori existitzen dela gehien azpimarratu dutenak. Elkarreok dira, hain zuzen, aniztasuna kontuan hartzen duten eta homofobiari aurre egitea helburu duten materialok sortzen aitzindariak. Hala ere, taldeetan parte hartu duten hiru elkarteek ere (Aldarteren 15 urteko gazteentzako tailerrak, Gehituren Hitz egin dezagun Homofobiaz, edo Errespetuz elkarrearen trans komikiak) azaldu dute zailtasunak daudela materialok ikastetxeetan lantzeko.

Ikastetxe formal eta ez-formaletan erabiltzen diren gizarte- eta hezkuntza-arloko euskarriek dituzten beste gabezia batzuk honakoak dira:

- Materialek definitzera bultzatzen dute ezinbestekak (Gasteizko FG), adibidez: guraso homosexualen familia bateko seme-alabei familia-zuhaitza osatzeko edo futbol-taldean izen emateko fitxa betetzeko eskatzerakoan aitaren eta amaren izena jartzeko eskatzea (Bilboko FG).
- Ez dago LGTB erreferentziarik testu-liburuetan (Bilboko FG); “normaltasuna islatu ezean, ezberdina ezberdin sentituko da eta besteak behin eta berriro gogoraraziko dio” (Bilboko FG); LGTB kolektiboa ezkutatu edo ikusezin egiten da, baina pertsonaia heterosexualen lana eta bizitza azaldu egiten dira, “harira etorri ez arren” (Donostiako FG).
- “Arazorik behinena ez dira materialak. Arazoa horiek erabili nahi izatea da. Materiala ez da bakarrik erabiltzen, beldurra galdu behar zaio halakoak erabiltzeari” (Bilboko FG).
- Hezkuntzarako bestelako bitartekoak ere hartu behar dira kontuan: kantu homofoboak irakastea eta erreproduzitzea (“Aitor, el gay, a tomar por culo”, sorgina pirulina, ¡maricón el que no bote!) (Donostiako FG), gehienetan horien esanahia eta norainokoa zein den jakin gabe (Bilboko FG); aulkien jokoa bezalako bazterketa-jolasak garatzea, etab. (Donostiako FG).

Puntu horretan, RAINBOWk sortutako ikus-entzunezko materiala azaltzerakoan, mota guztietako erantzunak sortu dira: batzuen ustez horretaz hitz egin behar da "gainontzekoei jabetzeko balio diezaien eta arraro senti ez daitezten" (Bilboko FG); edo "ikus-entzunezko materiala ezinbestekoa da, bikaina da. Material zaharrez inguratuta daude" (Gasteizko FG). Baina era berean, baloreak helarazteko modu bakarra edo, behintzat, garrantzitsuena ikus-entzunezko material bidezkoa izatearen egokitasuna zalantzan jarri dute (Donostiako FG).

Hiru taldeen ekarpen kritikoak aintzat hartuta, hona hemen material berriak sortzeko zenbait gako:

- Sektore eta kolektibo ezberdinei zuzenduta egon daitezela. Besteak beste, helduei zuzendutako materiala (familiak, GE, aisialdiko begiraleak); irakasleei oro har eta unibertsitateko irakaslegai zuzendutako materiala (Bilboko FG); eta, nola ez, adin guztietako ikasleei eta adingabeei zuzendutako materiala.
- Irakasleentzako gida praktikoak eduki ditzatela (Gasteizko FG).
- Irudiak, jostailuak eta antzeko baliabideak izan ditzatela, kultur artekotasunaren arazoa konpontzeko materialak bezalaxe.
- Partaideen integrazioa/inklusioa susta dezatela.
- Ez dezatela umeak definitzeko xederik izan; bizitza-aukera zabalak bultzatzea ditzatela.
- Bateragarriak izan daitezela ikasgeletan erabiltzen diren formatuekin (digitalak, 2.0 eskola, etab.) eta erakustaldiak laburrak izan daitezela (Gasteizko FG).

EZTABAIDA-TALDEEN DESKRIBAPENA

Eztabaida-taldeak osatzerako orduan euskal gizartearen eta elkarten aniztasuna hartu genuen kontuan, eta bereziki LGTB kolektiboan, hezkuntza formal edo ez-formalean lan egiten duten taldeen eta gazteen zein gazte-taldeen partaidetza.

Saioak 2011ko irailaren 21 eta 22an eta urriaren 4an egin ziren gure ustez neutroak diren eta hirigunetik gertu dauden tokietan, hau da, EAEko hiru hiriburu-taldeen gizarte-etxe edo kultur etxeetan.

1. focus group _ Gasteiz

	<i>Eragilea</i>	<i>Sexua</i>
<i>Irakasleak</i>	Haur Hezkuntzako eskola bateko irakasle lesbiana; 7menos20 taldeko kidea.	E
<i>LGTB elkarrekin</i>	GEHITU Euskal Herriko Gay, Lesbiana, Transexual eta Bisexualen Elkarteko kidea	G
<i>Bestelako</i>	STEE-EILAS Euskadiko Irakaskuntzako Langileen Sindikatuko kidea, irakaslea eta aita.	G
	Sexologoa eta EMAIZE sexologia-zentroko langilea.	E
	Gasteizko gazte-asanbladako eta Emeak talde feministako kidea.	E
	Ikaslea eta Gasteizko gazte-asanbladako kidea	E
<i>Administrazio publikoa</i>	Gasteizko Berritzeguneko (Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan prestakuntzan eta hezkuntzaren berrikuntzan laguntzeko zentroa) aholkularia, aktibista feminista eta ama.	E
<i>FARAPI</i>	Soziologoa eta aholkularia	E

2. focus group _ Bilbo

	<i>Eragilea</i>	<i>Sexua</i>
--	-----------------	--------------

<i>Irakasleak</i>	Haur hezkuntzako irakaslea	G
<i>Familiak</i>	Bullying homofobia/transfobia jasan duen mutil baten ama	E
	Guraso homosexualen familia bateko ama eta SEHASKA Elkarteko kidea	E
<i>LGTB elkarteak</i>	ALDARTE Gay, lesbiana eta transexualen Arreta Zentroko eta Sexu-askatasunei buruzko ikerketa eta dokumentazio zentroko abokatua	E
	Guraso homosexualen SEHASKA Elkarteko kidea	E
<i>Bestelako elkarteak</i>	guZU sexologia- eta psikologia-zentroko hezitzaile eta aholkularia	G
	ADARRA pedagogia-elkarteko kidea eta ingeles irakaslea	E
<i>Administrazio publikoa</i>	Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko hezkuntza-teknikaria	G
<i>FARAPI</i>	Soziologoa eta aholkularia	E

3. focus group _ Donostia

	<i>Eragilea</i>	<i>Sexua</i>
<i>Irakasleak</i>	Eskola publiko bateko musika irakasle gaya	G
	Eskola erlijioso bateko irakasle gaya	G
<i>Familiak</i>	Ama, GEko kidea eta HIRUSTA kolektiboko orientatzaile afektibo-sexuala	E
<i>LGTB elkarteak</i>	EHGAM Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimenduko gazte taldeko kidea eta aisialdiko begiralea	G
<i>Bestelako</i>	Hezkuntza-sektorean gehiengoa duen LAB sindikatuko kidea eta ikaslea	E
	Euskal eskola publiko berria sortzearen aldeko SORTZEN-IKASBATUAZ elkarteko kidea, eskola publiko bateko zuzendaria eta ama.	E
<i>Administrazio publikoa</i>	Transexualen arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren Berdindu zerbitzua, eta ERRESPETUZ	E
	transexualak defendatzeko eta integratzeko euskal elkarteko kidea	
<i>FARAPI</i>	Soziologoa eta aholkularia	E
	Antropologoa eta aholkularia	E

BIBLIOGRAFIA

ARARTEKOA (2011), *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak. Arartekoaren txosten berezia Eusko Legebiltzarrarentzat*, Vitoria-Gasteiz.

- (2009), “Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin”, in: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1719_1.pdf
- (2008), “Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan” in: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1819_1.pdf

HE (2011), *El adolescente y su entorno en el siglo XXI. Instantánea de una época*, Hospital Sant Joan de Déu, in: http://www.faroshsjd.net/adjuntos/1877.1-Faros_5_cast.pdf

FRA- European Union Agency for Fundamental Rights

- (2010), "Homophobia, transphobia and discrimination on grounds of sexual orientation and gender identity" in: <http://fra.europa.eu/fraWebsite/attachments/FRA-LGBT-report-update2010.pdf>
- (2009a), "*Homophobia and Discrimination on Grounds of Sexual Orientation in the EU Member States. Part I - Legal Analysis*" in: http://fra.europa.eu/fraWebsite/research/publications/publications_per_year/2008/pub_cr_homophobia_0608_en.htm
- (2009b), "*Homophobia and Discrimination on Grounds of Sexual Orientation and Gender Identity in the EU Member States. Part II: The Social Situation*" in: http://www.fra.europa.eu/fraWebsite/attachments/FRA_hdgso_report-part2_en.pdf

GENERELO LANASPA, J. eta PICHARDO GALÁN, J. (2004), "Homofobia en el sistema educativo. Investigación pluridisciplinar sobre la percepción que los adolescentes escolarizados tienen sobre la homosexualidad, las situaciones de acoso que viven los estudiantes LGTB, y las respuestas de la Comunidad Educativa ante el problema de la homofobia", in: http://www.cogam.org/_cogam/archivos/1437_es_Homofobia%20en%20el%20Sistema%20Educativo%202005.pdf

GENERELO, JESUS (2008), “Bullying homofobikoa: eskola jazarpenaren aurpegi ezkutua”, in Arartekoa, *Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan*, 35-47 orr.

ISEI/IVEI (2005), *El maltrato entre iguales. “Bullying” en Euskadi, Tratu txarra berdinen artean. Bullyinga Euskadin*, in: <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/bullyingprimaria1.pdf>

PLATERO MÉNDEZ, RAQUEL (2007), “¡Maricón el último!. Docentes que actuamos ante el acoso escolar en el instituto”, in: <http://www.icev.cat/mariconelultimo.pdf>

PLATERO MÉNDEZ, RAQUEL eta GÓMEZ CETO, EMILIO (2007), “*Herramientas para combatir el bullying homofóbico*”, Madril, Talasa

VILLAR SÁENZ, AMPARO; MUJICA FLORES, INMACULADA (2009), "Eskola orientazio sexualaren aurrean. «Sexu aniztasuna eta familia berriak» hezkuntza proiektuari buruzko txostena", in: <http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/Laescuelaantelaorientacionsexual.pdf>

Lege-esparrua:

Izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legea, in: http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=20030523&a=200302925

Ezkontzeko eskubideari dagokionez Kode Zibila aldatzen duen uztailaren 1eko 13/2005 Legea, in: <http://www.boe.es/boe/dias/2005/07/02/pdfs/A23632-23634.pdf>

Erregistroan pertsonen sexuari buruzko aipamena aldatzea arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legea, in: <http://www.boe.es/boe/dias/2007/03/16/pdfs/A11251-11253.pdf>

Bestelako erreferentzia interesgarriak:

"La actuación ante el maltrato entre iguales en el centro educativo" gida, in http://www.defensordelmenor.org/upload/documentacion/publicaciones/pdf/guia_consulta_profesor.pdf

GALOFRÉ, G eta PICHARDO, J.I. (Koord.) (2008), *Adolescencia y sexualidades minoritarias: voces desde la exclusión*, Alcalá Editorial, Ciudad Real

MOLINUEVO, BELEN (2007), *Especificidad del Acoso Escolar por Homofobia. El Sexo y El Amor no son de un solo color* ikastaroa, CCOO, Madril

SÁNCHEZ SÁINZ, MERCEDES (2007) "Formación del profesorado para la atención a la diversidad afectivo-sexual", in Pumares (koord.), *Formación del profesorado para atender a la diversidad*, Madril, CEP. Hemen eskura daiteke: <http://www.euskalnet.net/gehitumagazine/HEZKUNTZA/formprof.pdf>

SORIANO, SONIA (2004). *Adolescentes gays y lesbianas en el ámbito educativo: análisis de la realidad y líneas generales para una propuesta educativa*, Orientaciones, 8. alea.

TAKÁCS, JUDIT (2006). *Social exclusion of young lesbian, gay, bisexual and transgender people in Europe (LGBT)*. ILGA-Europe and IGLYO, in: <http://www.ilga-europe.org/europe/publications>